

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

7705 *9/2013 Errege Lege Dekretua, uztailaren 12koa, sistema elektrikoaren finantza-egonkortasuna bermatzeko premiazko neurriak ezartzen dituen.*

I

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen bidez energia elektrikoa sortzeko eta merkaturatzeko jarduerak liberalizatzeko prozesua abiarazi zenez geroztik, sektore elektrikoaren eredia, Espainian, bi printzipiotan oinarritu da: diru-sarreraren nahikotasunean eta bertan parte hartzen duten eragileek ordainsari egokia jasotzean.

1997ko abenduaren 11n, Espainiak Energiaren Europako Gutuna berretsi zuen, eta etengabe ari da Europako Erkidegoko ordenamendua barne-zuzenbidean txertatzen. Hori dela-eta, haiek egituratzen dituzten printzipioak bere egin ditu Espainiak, eta, horrekin batera, energia berriztagarriak sustatzen ari da, bai eta energia ahalik eta merkeen eta ingurunea ahalik eta gehien errespetatuta erabiltzeko baldintzak sortzen eta efizientzia energetikoa indartzen ere.

Agintaritza publikoak, arauen bidez esku hartuz, eredia definitzen duten printzipioez gain, horniduraren segurtasuna ere bermatu nahi du, aldez aurretik jakinik merkatuaren funtzionamenduak sektore elektrikoaren jasangarritasun ekonomikoa eta finantzarioa ahalbidetzen duela, eta parte hartzen duten eragileak aldakorra den sektorearen berariazko baldintzetara egokitu beharko direla, beharrezkoa izanez gero aipatutako segurtasuna bermatze aldera.

Aurrekoa gorabehera, Espainiako sistema elektrikoa tarifei dagokienez defizitarioa da duela hamarkada batetik hona, eta, denborarekin, egiturazko defizit bihurtu da, sektore elektrikoaren jarduera arautuei eta funtzionamenduari lotutako benetako kostuak handiagoak direlako Administrazioak ezartzen dituen eta kontsumitzaileek ordaintzen dituzten bidesarien bidez bildutakoa baino.

2004. eta 2012. urteen artean, sistema elektrikoak kontsumitzaileen bidesarien bidez lortutako diru-sarrerak ehuneko 122 egin dute gora, eta sistemaren kostu arautuak ehuneko 197 handitu dira denbora-tarte horretan. Igoera horretan eragin handien izan duten kostu-partiden artean, erregimen bereziko primak eta pilotutako defiziten urterokoak nabarmentzen dira; izan ere, aipatutako epean, hurrenez hurren, sei aldiz eta bederatziz aldiz handiagotu dira.

Energiaren Batzorde Nazionalaren azken datuen arabera, 2013ko maiatzaren 10ean, pilotutako zorraren saldoa 26.062,51 milioi eurokoa zen. Sistema elektrikoaren zorraren kalkuluaren osagarri, batzorde horrek adierazi du 2003tik 2013ko maiatzaren 10era bitartean 11.823 milioi euro ordaindu direla sistema elektrikoaren defizita finantzatzeko, kontsumitzaileen sarrera-bidesarrietan txertatzen diren urterokoen bidez, urte bakoitzeko prezio arruntetan.

Zenbatekook ikusita, argi dago sektore elektrikoaren defizita jasangaitza dela, eta, egoera hori konpontzeko, beharrezkoa dela berehala indarrean sartuko diren premiazko neurriak hartzea.

Agintaritza publikoak sektorean esku hartzea justifikatzen duten oinarriak abiapuntutzat hartuta, eta sistema elektrikoaren kostu-partiden handitzeak eragindako desorekak zuzentzeko helburuarekin, azken urteotan hainbat premiazko neurri hartu dira, kostuen partidari zein diru-sarrerenera eragiten dietenak.

Neurrien artean, apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretua aipatu behar da lehenik eta behin, energiaren sektorean zenbait neurri hartu eta gizarte-bonua onartzekoa, tarifa elektrikoaren defizitaren urteko hazkundeari muga batzuk ezarri baitzizkion, 2013an ezabatuz, eta, halaber, pilotutako defizita finantzatzeko mekanismo bat sortu zuen:

kobrantsa-eskubideak Sistema Elektriakoaren Defizita Titulizatzeko Funtza (FADE) izenekoari lagatzea eta, mekanismo lehiakor baten bidez, hirugarrenei ematea.

Nolanahi ere, apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretua onartu osteko hainbat gorabehera tarteko, defizitarekin lotuta ex ante finkatutako urteko gehieneko mugak ez ziren xedeak lortzeko nahikoa izan. Hala, eskariaren beherakada handiak, iturri berriztagarri primatueta oinarritutako ekoizpen elektrikoaren hazkundeak eta merkatu-prezioen beherakadak –neurri handi batean, nazioarteko egoera ekonomiko ahularen ondorio– areagotu egin zituzten aldi baterako desorekak, eta ez zuten konponbide erraza. Halako desorekak ezin ziren sarrera-bidesariak handituz konpondu, irtenbide horrek okertu baino ez baitzuen egingo familien eta enpresen egoera ekonomiko latza, eta, hortaz, kalte larriak eragingo baitzituen jarduera ekonomikoan.

Horrenbestez, arazoa konpontzeko, premiazko neurri berriak hartu ziren, bai apirilaren 9ko 6/2010 Errege Lege Dekretuan, susperraldi ekonomiko eta enplegua bultzatzeko neurri buruzkoan, bai abenduaren 23ko 14/2010 Errege Lege Dekretuan, elektrizitatearen sektorearen tarifa-defizita zuzentzeko premiazko neurri buruzkoan.

Hori horrela, aipatutako abenduaren 23ko 14/2010 Errege Lege Dekretuan, igo egin ziren apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuak defizitari zegokionez 2010erako, 2011rako eta 2012rako ezarritako gehieneko mugak, 2013tik aurrera elektrizitate-sisteman defizita ez izateko helburuari eutsita. Gainera, unean uneko beste neurri batzuk hartu ziren, kontsumitzailea babesteko eta sistemaren kostuen eta diru-sarreraren partida batzuk murrizteko.

Sarrera-bidesariek eragindako kostuak murrizteko neurrien artean, mugatu egin ziren instalazio fotovoltaikoen funtzionamendu-ordu baliokide primatuak, teknologia horren sorkuntza-aurreikuspenen desbiderapenak zuzentzeko. Horrez gain, 2010erako eta 2011rako aurreikusitako defizitei aurre egiteko, handitu egin zen Estatuaren abala emateko zenbatekoa, eta 22.000 milioi eurotan finkatu zen; horretarako, aldatu egin zen 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 39/2010 Legea.

Diru-sarreraren aldetik, energia-ekoizleak sortze-bidesaria ordaintzera behartu ziren, jarduera horrek eragin handia duelako garraio- eta banaketa-sareen garapenean.

Era berean, 2012an premiazko neurri gehiago hartu ziren; izan ere, aipatutako faktoreek okerrera egitearen ondorioz, egoera hasieran aurreikusitakoa baino larriagoa zen.

2012an hartutako neurrien artean, batzuk nabarmentzen dira. Lehenik eta behin, urtarrilaren 27ko 1/2012 Errege Lege Dekretua, energia elektrikoa kogeneraziotik, energia-iturri berriztagarrietatik eta hondakinetatik sortzeko instalazio berrietarako ordainsariak aurrez esleitzeko prozedurak eten eta pizgarriak kentzen dituen; errege lege-dekretu horrek ezabatu egin zituen erregimen bereziko teknologien instalazioak eraikitzeko pizgarriak, sistema elektrikoari bestelako kosturik ez eranstearen.

Bestetik, martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretua aipatu beharra dago. Horren bidez, elektrizitatearen eta gasaren barne-merkatuen arloko eta komunikazio elektronikoen arloko zenbait zuzentzauren transposizioa egiten da, eta gasaren eta elektrizitatearen sektoreetako kostuen eta diru-sarreraren arteko bat ez etortzeak eragindako desbideratzeak zuzentzeko neurriak onartzen dira. Dekretu horrek, sektore elektrikoaren kostuak murriztea oinarritzat hartuta, banaketako eta garraioko jardueren ordainsariak arautzeko irizpide berriak ezartzen ditu, 2012ko ordainsaria egokituta; aldi berean, garraio-instalazio berrien gauzatzea mugatzen du, bai gasaren, bai elektrizitatearen sektoreetan, eta, besteak, beste potentzia-bermea kontzeptuarengatik elektrizitatea sortzen duten enpresei ordaindu beharreko zenbatekoa murrizten.

Era berean, uharteetako eta penintsulatik kanpoko sistema elektrikoetako sorkuntza-jardueraren ordainsaria zuzentzen du, erregaia eskuratzeagatik aitortutako kostuaren bidez, eta potentzia-bermeagatik ordainsaria instalazioen benetako erabilgarritasunarekin lotzen du.

Ilido beretik, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurri buruzkoak, beste neurri gehigarri batzuk txertatzen ditu, uharteetako eta penintsulatik kanpoko sistema

elektrikoen erregimen arrunteko sorkuntza-zentralen ordainketa-erregimenaren inguruan. Halaber, beharrezkotzat jotzen du sarrera-bidesarrietan eta azken aukerako tarifetan lurralde-gehigarri bat ezartzea, horniketa elektrikoaren jarduerak edo horretarako instalazioak tributu propioekin edo Estatuko tributuen gaineko errekaruekin zergapetzen dituzten autonomia-erkidegoentzat; gainera, garraio-jardueraren ordainsaria aldatzen du, inbertsio-kontzeptuarengatik ordainsaria jarduneko aktibo ez-amortizatuentzat aitortuko dela xedatuz, eta finantza-ordainsarirako oinarri gisa horien balio garbia hartuta.

Diru-sarrerei dagokienez, abenduaren 27ko 15/2012 Legea onartu zen, jasangarritasun energetikorako neurri fiskalei buruzkoa. Lege horrek zerga-sistema harmonizatzea du helburu, energia modu efizienteagoan erabiliz eta ingurumena zein jasangarritasuna gehiago errespetatuz; guztia ere, Europar Batasuneko zerga-, energia- eta ingurumen-politika arautzen duten oinarriko printzipioekin bat. Energiaren sektoreak eragin itzela duenez ekonomiaren eta ingurumenaren arloetan, legeak ezohiko neurriak ezarri zituen; hala, sistemaren kostuak finantzatzeko, sarrera-bidesarien eta gainerako prezio arautuen bidez bildutako diru-sarrerak ez ezik, Estatuko Aurrekontu Orokorretako partida jakin batzuetan jasotako diru-sarrerak ere erabiliko ziren.

Horretarako, zerga-figura berriak sartzen dira tributu-sisteman, eta berariaz adierazten da bildutako zenbatekoaren balioidea den kopuru jakin bat sistema elektrikoaren kostu jakin batzuk estaltzera bideratuko dela. Lehenik eta behin, hiru zerga berri arautzen dira: energia elektrikoa sortzeko balioaren gainekoa, energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gainekoa, eta erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitzearen gainekoa. Bestalde, ur kontinentalak energia elektrikoa sortzeko erabiltzeagatik kanon bat sortzen da, eta gasari zein ikatzari ezarritako zerga berezien tasak aldatu egiten dira. Horrez gain, ezabatu egiten dira energia elektrikoaren sorkuntzan eta elektrizitate eta bero erabilgarriaren kogenerazioan erabilitako energia-produktu jakin batzuentzat aurreikusitako salbuespenak. Azkenik, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea aldatzen da, erregaiak erabiltzen dituzten energia berriztagarriko instalazioek erregimen ekonomiko primatua jasotzeko duten eskubidearekin lotutako alderdietan.

Aipatutako arauetan egindako aldaketei esker, sistemaren kostu jakin batzuk murriztu egin ziren, eta diru-sarrerak handitu, lege- eta zerga-arloko jarduketak konbinatu izanari esker.

Bestetik, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legeak salbuespenezko hiru neurri ezartzen ditu. Lehenik eta behin, aurreko ekitaldian bezala, bertan behera uzten da energiaren sorkuntzaren gainkostuak Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura konpentsatzeko mekanismoa, uharteetako eta penintsulatik kanpoko lurraldeetan. Bigarrenik, legeak dio 2013an ez direla aplikatuko Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian ezarritako Sistema Elektrikoaren Defizita Titulizatzeko Funttsaren abal-mugak –xedapen hori sektore elektrikoko jarduera arautuen sarrera-bidesarien nahikotasunari eta diru-sarreraren desorekari buruzkoa da–. Hirugarrenez, energia berriztagarriak sustatzeari begira, sistema elektrikoaren kostuak finantzatzeko hainbat ekarpen ezartzen ditu. Ekarperek honako hauen baturaren emaitza izango dira: batetik, jasangarritasun energetikorako zerga-neurriei buruzko legean xedatutako tributuen ondorioz Estatuari dagokion urteko bilketaren kalkulua, eta, bestetik, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkantearen ondorioz kalkulatu diren diru-sarreraren ehuneko 90 (gehenez ere 450 milioi euro).

Era berean, etxeko langileen sistema berezian kudeaketa eta babes soziala hobetzeko eta izaera ekonomiko eta sozialeko beste neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 29/2012 Errege Lege Dekretuak xedatu zuen 2012rako likidazio-sistema elektrikoaren diru-sarreraren defizit gisa hartuko zirela 2012an gertatutako sistema elektrikoaren likidazioen aldi baterako desorekak; hala, titularrek Sistema Elektrikoaren Defizita Titulizatzeko Funttsari laga ahalko dizkioten kobrantza-eskubideak sortuko zituen defizit horrek; horri, gainera, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen

hogeita batgarren xedapen gehigarrian aitortutako defizita gehitu behar zaio (1.500 milioi euro). Orobat, erregimen bereziko instalazioei ordainsariak aurrez esleitzeko mekanismoa sortzean finkatutako azken helburua bermatzeko (alegia, erregimen bat ziurtatzea, epe zehatz batean instalazioa guztiz burutzeko oinarri eta baldintza pean), erregimen ekonomiko primatua kentzeko edo zuzentzeko gaikuntza bat ere sartu zen, erregimen ekonomikoa behin betiko eskuratzeko funtsezkoak diren betebeharrak ez direla betetzen egiaztatzen den kasuetarako.

Halaber, sistema elektrikoko eta finantza-sektoreko premiazko neurriei buruzko otsailaren 1eko 2/2013 Errege Lege Dekretuak sistema elektrikoaren kostuen eta araututako prezioetatik lortutako diru-sarreraren arteko desorekak zuzentzeko neurri berriak txertatu zituen, kontsumitzaileek kostu handiagoari aurre egin beharra saihesteko. Horretarako, aldatu egin zen sektore elektrikoaren kostuak eguneratzeko indizea; hain zuzen ere, erreferentzia egonkorrago bat erabiltzearen, eta elikagai ez-elaboratuen eta etxean erabiltzeko erregaien prezioen aldakortasunaren eraginpean ez egoteko. Hala, ordainsariak, tarifak eta primak eguneratzeko, sektoreko araudian aurreikusitako kontsumoko prezioen indizearen ordez, zerga konstanteen arabera kontsumoko prezioen indizea, elikagai ez-elaboraturik eta energia-produkturik gabekoa, erabiltzeari ekin zitzaion 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera (azpiko KPI - zerga konstanteen arabera).

Otsailaren 1eko 2/2013 Errege Lege Dekretuak, gainera, aldatu egin zuen energia elektrikoa erregimen berezian ekoizteko jarduera arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretua, bai instalazio horietan arrazoizko errentagarritasuna bermatzeko, bai horien gainordainketa saihesteko, gainerako subjektu elektrikoaren gain gelditu ez zedin. Hori horrela, errege lege-dekretu hori indarrean sartu zenetik, bi dira erregimen bereziko instalazioetan ekoiztutako energia saltzeko aukerak: elektrizitatea sistemari lagatzea eta trukean araututako tarifa jasotzea, edota elektrizitatea energia elektrikoa ekoizteko merkatuan saltzea, prima-osagarririk gabe.

2013ko ekainaren 20an, Diputatuen Kongresuak lege bat onartu zuen, sistema elektrikoaren kostu jakin batzuk Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatzeko – zehazki, kostu horiek energia elektrikoa energia-iturri berriztagarrietatik abiatuta ekoiztea sustatzeko pizgarri ekonomikoen ondorio direnean–; horrekin lotuta, 2.200.000.000 euroko ezohiko kreditua xedatzen da Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren aurrekontuan.

Kostuon doikuntza horrez gainera, beste neurri batzuk hartu dira; neurriok handitu egin dituzte kontsumitzaileen sarrera-bidesariak, eta, ondorioz, sistema elektrikoaren diru-sarrerak areagotu egin dira.

Azken hilabeteotan hartutako neurriek modu proportzional eta orekatuan eragin diete sektore elektrikoko subjektuei, eta, 2013. urtearen hasieran eskura geneuzkan datuetan oinarrituta, esan genezakeen urtearen hasiera horretan bete egin zitekeela tarifa-nahikotasunaren helburua, sektorean jarduten duten kontsumitzaile eta enpresek egindako ahaleginari eta horretarako bideratutako aurrekontu-sailei esker.

Arrazoi horrengatik, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak, otsailaren 14ko IET/221/2013 Agindua egin den aurrekontu-ekitaldian –agindu horren bidez, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako sarrera-bidesariak eta erregimen bereziko instalazioen tarifak eta primak ezartzen dira– sareetarako sarrera-bidesarien prezioa mantentzea erabaki zuen, diru-sarrerak sistemaren 2013ko kostuak estaltzeko nahikoa izango zirela irizita.

Nolanahi ere, 2013ko lehenengo seihilekoan jazotako hainbat gertakariaren ondorioz, urtearen hasieran kalkuluak egiteko erabilitako hipotesiak aldatu egin dira; hala, egoera zuzentzeko premiazko neurririk hartu ezean, ekitaldiaren amaieran desorekak agertuko dira berriro ere.

Desbiderapenok ohiz kanpoko meteorologia-baldintzengatik gertatu dira; izan ere, 2013ko lehenengo hilabeteotan, plubiometria-mailek eta haize-baldintzek nabarmen gaituzte dituzte batez besteko historikoak.

Horiek efektu bikoitza izan dute. Alde batetik, eguneko merkatuko prezioak behera egin du: batez beste, 18,17 €/MWh-ko minimoraino, apirilean. Hori dela bide, 2013ko

lehenengo sei hilabeteotako batez besteko prezioa ez da 37 €/MWh-ra iritsi; zenbateko hori urte osorako aurreikusitako 51,19 €/MWh baino nabarmen txikiagoa da. Beste alde batetik, teknologia batzuek ordu gehiago eman dituzte funtzionatzen; batez ere, erregimen primaturako eskubidea duen energia eolikoaren kasuan. Horiek horrela, erregimen bereziko gailak goranzko desbiderapen handia izan du, merkatu-prezio txikiagoak erregistratu direlako.

Gainera, jarduera ekonomikoaren beherakadaren eta krisiak etxeko ekonomietan izandako eraginaren ondorioz, uste baino gehiago murriztu da eskaria. Hala, sistemaren operadore den Red Eléctrica de España, SA enpresak 2013ko uztailaren 5ean argitaratutako balantze elektrikoak adierazten duenez, eskariak ehuneko 2,7 egin du behera 2013an, eta ehuneko 2,3 azken hamabi hilabeteotan; otsailaren 14ko IET/221/2013 Aginduak 0,3ko murrizketa aurreikusten zuen. Gertakari horrek eragin negatiboa du, energia elektrikoaren sarrera-bidesariengatik sarrerak txikitu egin direlako.

Bestetik, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrek prestatzean, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak adierazi du ezinezkoa izango dela energia-sektoreko zenbait neurri hartzeko eta gizarte-bonua onartzeko apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian zehaztutakoa erabat betetzea. Xedapen horrek adierazten du uharteetako eta penintsulatik kanpoko sistemen sorkuntza-gailak konpentsazioak Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko direla. Aurrekontu-egoera zaila denez, ezinezkoa da gailak hori osorik ordaintzea, 2014ko ekitaldirako zehaztutako defizit-helburuak betetzea arriskuan jarri gabe.

Baldintza horiek agerian jartzen dute premia hori dela sistema elektrikoaren finantza-egonkortasuna bermatzeko hainbat premiazko neurri hartzea, eta, aldi berean, araudi-esparrua berrikustea, sektorearen errealitatea denbora-tarte bakoitzeko gertakarietara egokitzeko, sistema elektrikoaren jasagarritasuna mantentze aldera.

Horri guztiari erantsi behar zaio Espainiako Gobernuak 2013ko apirilaren 30ean Europako Batzordeari aurkeztutako Erreformen Programa Nazionalaren barruan, konpromiso zehatz bat jasotzen zela; alegia, lehenengo sei hilabeteotan, sistema elektrikoaren finantza-egonkortasuna bermatzeko arau-neurri sorta bat aurkeztekoa.

Printzipiook aintzat hartuta, eta aipatutako aldaketekin bat etorritik, errege lege-dekretu honek hainbat premiazko neurri xedatzen ditu; guztiak ere orekatuak, proportzionalak eta helmen handikoak. Neurri horiek sistema elektrikoaren finantza-egonkortasuna bermatzeko helburua dute, haren jasagarritasun ekonomikoaren eta horniketa-segurtasunaren funtsezko oinarria den heinean, eta sektore elektrikoaren jardura guztietara zuzenduta daude.

II

Lehenik eta behin, Gobernuak gaitu egiten da energia-iturri berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik abiatuta energia elektrikoa ekoizteko instalazioetarako erregimen juridiko eta ekonomiko berria onar dezan. Era horretan, aldatu egiten da Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 30.4 artikulua, bertan erregimenak ardatz izango dituen printzipio zehatzak txertatzeko, eta, horrela, instalazioetarako ordainketa-erregimenen garapenean Gobernuaren jarduketa-tartea mugatzeko. Merkatuan parte hartzeak sortutako diru-sarrerak eskuratzean oinarrituko da erregimen hori, eta ordainsari gehigarriak, beharrezkoa izanez gero, ondo kudeatutako enpresa efiziente batek merkatuan berreskuratzen ez dituen inbertsio-kostuak estaliko ditu. Zentzu horretan, Europar Batasuneko jurisprudentziari jarraituz, ondo kudeatutako enpresa efizientea hauxe izango da: bere jardura garatzeko beharrezko bitartekoak dituen, eta jardura horretan efizientzia aritzen den enpresa baten kostuak dituen; aintzat hartuko dira, halaber, haren funtzioak gauzatzeko dagozkion diru-sarrerak eta arrazoizko irabazia. Enpresa ez-efiziente baten kostu handiak erreferentzia gisa ez hartzea da helburua.

Horrela, instalazio horiek dauzkaten kostu gehigarriak estali nahi dira, merkatuko gainerako teknologia aintzat hartuta.

Esparruak artikulatuko duen ordainsariaren bidez, energia-iturri berriztagarrietan, kogenerazioan eta hondakinetan oinarritutako instalazioek aukera izango dute, kostuak estalita, merkatuan gainerako teknologiekin berdintasunezko egoeran lehiatzeko eta arrazoizko errentagarritasuna lortzeko.

Ereduzko instalazio baten ordainsari espezifikoak kalkulatzeko, hurrengoak hartuko dira aintzat: sortutako energia saltzeagatiko diru-sarrerak (energia ekoizpen-merkatuko prezioan baloratuta), ustiapen-kostuak, jarduera gauzatzeko beharrezko bitartekoak eta ereduzko instalazioaren hasierako inbertsioaren balioa; guztia ere, ondo kudeatuta dagoen enpresa efiziente batentzat. Modu horretan, parametro estandarretan oinarritutako ordainketa-erregimena finkatzen da, ezarriko diren ereduzko instalazioen arabera.

Xedatutakoaren arabera, gainera, ez dira kontuan hartuko Espainia osoan aplikatzekoak ez diren arauak edo administrazio-egintzek zehazten dituzten kostuak edo inbertsioak; bestalde, kostuak eta inbertsioak energia elektrikoa ekoizteko jarduerari lotutakoak izan beharko dira, modu eksklusiboan.

Hala, kostuak modu orekatuan banatzen dira sistema elektrikoaren, kontsumitzaile elektrikoaren eta zergadunen artean, kostuon zati bat Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatzen baitira.

Arrazoizko errentagarritasunaren kontzeptua azaroaren 27ko 54/1997 Legean zehazten da; azken urteotan horren inguruan sortutako jurisprudentzia-doktrinarekin bat, proiektuaren errentagarritasunean oinarritzen da kontzeptua. Errentagarritasun horrek, zergak ezarri baino lehen, Estatuaren hamar urterako betebeharrak bigarren mailako merkatuan duten batez besteko errendimendua, diferentzial egokia aplikatuta, hartuko du oinarri.

Arau-esparru berriak erantzun globala ematen die azken urteotan gertatutako aldaketa sakonei, eta aski justifikatuta dago. Arau-esparru berriak aipatutako teknologietan egindako inbertsioak babesten jarraitzen du, eta horiek behar bezala sustatzen. Zalantzarik gabe, esparrua oro har onuragarria da guztientzat; besteak beste, ordainsari-parametroak sei urtero berrikusteko irizpidea ezartzen duelako, lege aitortutako arrazoizko errentagarritasunaren printzipioa mantentze aldera. Era horretan, sistema aurreikusgarri bat ezarrita, egonkortu egin nahi da araudiak arrazoizko errentagarritasuna mantentzearen izan dituen etengabeko egokitzapenak.

Erregimen berria ezartzeko, honako hauek indargabetzen dira: apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua, zeinaren bidez energia-sektoreko zenbait neurri hartu eta gizarte-bonua onartzen baita; maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretua, energia elektrikoa erregimen berezian ekoizteko jarduera arautzen duena; eta irailaren 26ko 1578/2008 Errege Dekretua, energia elektrikoa sortzeko jardueren ordainsariak ezartzen dituena, hura eguzki-teknologia fotovoltaikodun instalazioen bidez sortu denean, maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuak teknologia horretarako ezartzen dituen ordainsarien amaierako data igaro osteko instalazioentzat. Edonola ere, instalazioentzako ordainsari-fluxuak zein gainerako prozedura, eskubide eta betebeharrak mantentzearen, araudi berria onartu bitartean, aipatutako arauetan xedatutakoa aldi baterako aplikatuko da, alderdi jakin batzuk salbu.

Era horretan, instalazioek, hala badagokio, kontu-likidazioa egingo dute aldi baterako erregimen horren babesean, eta ondoren, erregimen ekonomiko berria aplikatzeko beharrezko arau-xedapenak onartu ostean, metodologia berriaren aplikazioak eragindako kobrantza-eskubideak edo ordainketa-betebeharrak izango dituzte. Metodologiak errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta berehala izango ditu ondorioak.

Hortaz, nahiz eta ordainsariei buruzko xedapenak errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta berehala izango diren eraginkor, araudiak elementu aurreikusgarriak eskaintzen dizkie eragileei, ordainsari-mekanismoa ezartzen duelako, merkatu-partaidetza eta inbertsioaren ordainsaria jasotzea barne, eta ereduzko instalazioaren arrazoizko errentagarritasunaren tasa zehazten duelako.

Beste alde batetik, errege lege-dekretu hau indarrean sartzean erregimen ekonomiko primaturako eskubidea duten instalazioen kasuan, errentagarritasun jakin bat zehazten da, zergak ezarri baino lehenagokoa. Horrek Estatuaren hamar urterako betebeharrak

bigarren mailako merkatuan azken hamar urteetan izandako batez besteko errendimendua, 300 oinarrizko puntutan handitua, izango du oinarri, eta sei urtera berrikusi ahal izango da.

Bigarrenez, banaketarekin eta garraioarekin lotutako jardueren ordainketa-erregimenari dagokionez, hainbat premiazko neurri ezartzen dira.

Banaketa-jardueraren ordainsaria kalkulatzeko metodologia otsailaren 15eko 222/2008 Errege Dekretuan araututa dago gaur egun, zeinaren bidez energia elektrikoa banatzeko jardueraren ordainketa-erregimena ezartzen baita. Martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuak aldatu egin du erregimen hori, eta 5. artikuluan ezartzen du Industria, Energia eta Turismoko ministroak errege-dekretu proposamen bat igorriko diola Gobernuari banaketa-jarduerari dagokionez, hura onar dezan. Proposamenak instalazioen inbertsio-ordainsaria jarduneko aktibo ez-amortizatuekin lotuko du, eta instalazioek eragindako ordainsariaren sortzapena eta kobrantza n+2 urteko urtarrilaren 1etik aurrera hastea ezarriko du, n instalazioa zerbitzuan jarri zen urtea izanda.

Gainera, sistema elektrikoko eta finantza-sektoreko premiazko neurriei buruzko otsailaren 1eko 2/2013 Errege Lege Dekretuan honako alderdi hauek xedatu ziren, hurrenez hurren: bateko, aurrez aipatutako ordainsariaren sortzapen-irizpidea eta, besteko, kontsumoko prezioen indizeari lotutako eguneraketak barne hartzen dituzten metodologia guztietan, indize horren orde zerga konstanteen arabeko kontsumoko prezioen indizea erabiltzea, elikagai ez-elaboraturik eta energia-produkturik gabekoa.

Hortaz, otsailaren 14ko IET/221/2013 Agindua (2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako sarrera-bidesariak eta erregimen bereziko instalazioen tarifak eta primak ezartzen dituen) otsailaren 15eko 222/2008 Errege Dekretuaren babesean onartu zen, baina, betiere, martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuaren eta otsailaren 1eko 2/2013 Errege Lege Dekretuaren printzipioei men eginez.

Garraioaren ordainsaria kalkulatzeko eta berrikusteko metodologiari dagokionez, metodologia hori energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko jarduerak arautzeko abenduaren 23ko 2819/1998 Errege Dekretuan araututa dago, bai eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera abiarazitako instalazioetarako energia elektrikoa garraiatzeko jardueraren ordainsaria ezartzen duen otsailaren 29ko 325/2008 Errege Dekretuan ere. Halaber, ordainketa-erregimena aldatu egin dute hiru arau hauek: martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuak, otsailaren 1eko 2/2013 Errege Lege Dekretuak eta aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak.

Martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluari jarraituz, garraio-jarduerari dagokionez, Industria, Energia eta Turismoko ministroak errege-dekretu proposamen bat igorriko dio Gobernuari, banaketa-jarduerari dagokion ordainsariaren sortzapen- eta kobrantza-irizpide berberarekin, hura onar dezan. Era berean, garraio-jarduerarako irizpide gisa, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 39. artikuluan ezartzen denez, inbertsio-kontzeptuagatiko ordainketa jarduneko aktibo ez-amortizatuentzat egingo da, finantza-ordainketarako oinarri gisa aktibo horien balio garbia hartuta.

Hala, banaketa-jardueraren kasuan bezala, ikusten dugu otsailaren 14ko IET/221/2013 Agindua egin zenean, garraio-jardueraren ordainsaria kalkulatzeko metodologia arautzen zuten abenduaren 23ko 2819/1998 Errege Dekretua eta otsailaren 29ko 325/2008 Errege Dekretua zirela, baina, hura aplikatzeko, martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuari, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuari eta otsailaren 1eko 2/2013 Errege Lege Dekretuari egin behar zitzaizela men.

Ondorioz, errege lege-dekretu honen bidez, aldatu egiten da Sektore Elektroko buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea, energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko zenbait ordainketa-printzipio gehigarri txertatzeko asmoz. Lehenik eta behin, adierazten da jarduerok ordaintzeko metodologietan aintzat hartuko direla ondo kudeatutako enpresa efiziente batek jarduera hori egiteko beharrezkoak dituen kostuak, Espainia osoan irizpide homogeenoa aplikatzearen bidez. Bigarrenez, baieztatzen da erregimen ekonomiko horiei esker, arrisku txikiko jarduera bati dagokion ordainketa egokia ezarriko dela, sareko

jarduerak ez daudelako ekoizpen-merkatuaren berezko arriskuen mende zuzenean, eta, eskariaren egoera gorabehera, ordainketa-erregimenek jarduneko instalazioei ordainsaria ematen dietelako instalazioon balio-bizitza arautzailean zehar, betiere horiek eraginkor mantentzen badira. Azken printzipio hori aplikatzeko, aktiboen ordainketa-tasa Estatuaren betebeharreri lotutakoa izango da, diferentzial bat gehituta.

Hala ere, errege lege-dekretu hau urtearen lehenengo seihilekoa jada igarota dela onartzen denez, otsailaren 14ko IET/221/2013 Aginduan jasotako ordainsariaren zati proportzionalari behin betiko izaera ematea erabaki da, errege lege-dekretu hau indarrean sartu arte. Era berean, data horretatik aurrera, metodologia iragankorra ezarriko da, eta lehenengo epe arautzailea hasi arte egongo da indarrean –epe hori martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuaren 5 eta 6. artikuluetan aurreikusitako errege-dekretuen babesean ezarriko da–. Horri guztiari esker, urteko ordainketa-tasa egokia aplikatuko dela bermatu ahal izango da, oro har ezarritakoarekin bat etorritz.

Erregimen bereziko instalazioen eta garraioko eta banaketako jardueren ordainketa-erregimena aldatzen duten neurriak premiaz onartu ditugu, lehenbailehen hasi behar dugulako sistemaren kostuak murrizten, desorekak zuzentzen hasteko; era horretan, urte amaieran berriro ere sistemaren diru-sarreraren eta kostuen arteko desoreka gertatzea saihestuko da.

Bestetik, Sektore Elektriokoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 12. artikulua adierazten duenez, uharteetako eta penintsulatik kanpoko lurraldeetan garatzen diren energia elektrikoaren horniketa-jarduerari buruzko araudiak aintzat hartu beharko ditu kokapenaren aldetik dituzten berezitasunak.

Beste alde batetik, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera abiarazitako instalazioetarako energia elektrikoa garraiatzeko jardueraren ordainsaria ezartzen duen otsailaren 29ko 325/2008 Errege Dekretuak xedatzen du estandarrak berdinak izango direla lurralde nazional osoan. Hortaz, aukerak bi dira: gainkostu hori estandar nazionalen kalkuluan txertatzea, edota uharteetako edo penintsulatik kanpoko sistemetarako estandar espezifikoak sortzea.

Kostuak behar bezala esleitzeko eta estandar desitxuraturik ez sortzeko, estandar espezifikoak zehaztu dira uharteetako edo penintsulatik kanpoko sistemetarako. Horretarako, otsailaren 29ko 325/2008 Errege Dekretuaren zenbait xedapen aldatu egin behar dira.

Aldaketa horiek lehenbailehen egin behar dira; izan ere, 2008, 2009, 2010 eta 2011ko ordainsariak ezin dira behin betikotzat jo, Industria, Energia eta Turismoko ministroak uharteetako eta penintsulatik kanpoko sistemetako inbertsio, eragiketa eta mantentzearen balio unitarioak onartu arte. Hori dela-eta, ezin izan dira urte horietako behin betiko likidazioak onartu; alabaina, egoera hori jasanezina da eta ezin da gehiago luzatu.

III

Hirugarrenez, Sistema Elektriokoaren Defizita Titulizatzeko Funttsaren inguruko hainbat neurri hartzen dira.

Etxeko langileen sistema berezian kudeaketa eta babes soziala hobetzeko eta izaera ekonomiko eta sozialeko beste neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 29/2012 Errege Lege Dekretuak, bere azken xedapenetako laugarrenean, aldatu egiten du Sektore Elektriokoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea, eta ezartzen du 2012an sortzen den defizit gehigarriak, ex ante mugatik harantz, kobrantza-eskubideak sortuko dituela; enpresa elektrikoek, aldi berean, Sistema Elektriokoaren Defizita Titulizatzeko Funttsari laga ahalko dizkiote eskubideok. 2012an, araututako jardueren likidazioak 5.609 milioi euroko emaitza izan du, urte horretako defizitari dagozkionak; hortaz, epe horretako defizit gehigarria 4.109 milioi euro izan dira.

Sistema Elektriokoaren Defizita Titulizatzeko Funttsak Estatuko Administrazio Orokorrek abalaturako jaulkipenen bidez finantzatzen du lagatzen zaizkion kobrantza-eskubideen eskuratzea. Aipaturiko funtsari 22.000 milioi euroko saldo biziko abala eman zitzaion; ez zituen barne hartzen funts horri 4.109 milioi euroko kobrantza-eskubide gehigarriak lagatzeko aukeraren ondoriozko finantzaketa-behar gehigarriak. Dagokion emate-

aginduaren arabera Sistema Elektriakoaren Defizita Titulizatzeko Funtsak duen abal-soberakina aintzat hartuta, beharrezkoa litzateke beste abal bat ematea, 4.000 milioi eurokoa, funtsaren bizitzan zeharreko jaulkipen-behar gehigarriak eta aurreikusitako gainfinantzaketak estaltzeko nahikoa marjina izateko.

Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 114. artikuluari jarraituz, Estatuak, abalak eman ahal izateko, lege-lerruneko arau baten baimena behar du aldez aurretik. Arau horretan, emango den abalaren gehieneko zenbatekoa, abalaren onuraduna eta hura emateko gehieneko epea zehaztuko dira.

Hortaz, beharrezkoa eta premiazkoa da 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 54. artikulua aldatzea, Estatuko Administrazio Orokorrek uneko ekitaldian emango dituen abalen guztizko muga 4.000 milioi eurora arte handitzeko; era berean, xede horretarako abalaren mugari dagokion erreserba espezifikoak txertatu behar da, artikuluko 2. paragrafoan.

Laugarrenez, xedapen gehigarri bat ezartzen da, zeinaren arabera uharteetako eta penintsulatik kanpoko sistemen sorkuntza elektrikoaren gainkostuaren zati bat soilik finantzatu ahal izango den Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura.

Hala, aurrez adierazi den bezala, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrek ezin dute beren gain hartu uharteetako eta penintsulako sistemen gainkostuak 2013an eragindako zenbateko osoa. Ondorioz, premiaz, bateko, indargabetu egiten da apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarria, eta, besteko, uharteetako eta penintsulatik kanpoko erregimenari dagokionez, xedatzen da sorkuntza-gainkostuaren ehuneko 50 baino ez dela izango finantzatzeko Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura. Hortaz, 2013. urteari dagokion gainkostua 2014rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean sartuko da.

IV

Bosgarrenez, errege lege-dekretu honetan, ahalmenaren arabeko ordainketen inguruko neurri zehatz batzuk ezartzen dira.

Ahalmenaren arabeko ordainketek bi zerbitzu mota barne hartzen dituzte: epe luzerako ahalmen-inbertsiorako pizgarria eta epe ertainerako erabilgarritasun-zerbitzua.

Epe luzerako ahalmen-inbertsiorako pizgarria 2007ko urriaren 1etik aurrerako tarifa elektrikoak berrikusten dituen irailaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduan araututa dago, eta bere helburua ahalmen berriko inbertsioa ordaintzea da, epe luzerako eskariaren estaldura bermatzeko beharrezkoa dena. Mekanismo horrek potentzia instalatu zehatza duen sistemaren operadorea eskuragarri jartzea sustatzen du, eta sorkuntza-instalazioa martxan jartzeko aktaren bidez egiaztatzen da.

Martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuak, 2012rako salbuespen gisa, berrikusi egin zituen abenduaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduan aurreikusitako epe luzerako inbertsiorako pizgarriaren ordainsariak, eta urteko 23.400 €/MW-tan ezarri. Egungo testuinguruan, energia elektrikoaren eskaria asko jaisten ari denez, eta ahalmen instalatuaren defizit-arriskua oso txikia denez, premiazkoztat jotzen da pizgarri horren murrizketa zabaltzea eta urteko 10.000 €/MW-tan ezartzea, bai eta pizgarri hura jasotzeko geratzen den epea luzatzea ere, errege lege-dekretu hau indarrean sartzean kobrantza-eskubidea duten instalazioentzat.

Era berean, utzi egiten zaio irailaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduan araututako pizgarria ekoizpen-instalazio berrietan aplikatzeari; salbuespen dira, hala ere, martxan jartzeko behin betiko akta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratzen dutenak.

Horrez gain, erregimen bereziko instalazioen inguruko bi neurri aurreratu egiten dira, instalazioen funtzionamendu-moduari eragingo liokeen eta metodologia berria onartutakoan zuzendu ezingo litzatekeen edozein eragozpen saiheste aldera. Hala, alde batetik, kendu egiten da efizientzia-osagarria, maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuaren 28. artikuluko arabera jasotzen ari diren instalazioentzat, eta, bestetik, ezabatu egiten da aipaturiko errege lege-dekretuaren 29. artikuluan aurreikusitako energia erreaktiboarengatik hobaria. Egungo egoera aintzat hartuta, ezinbestekoa eta premiazkoa da, dagoeneko aipatu den bezala, sistemaren kostuak murriztea. Gainera,

neurriok ez diote instalazioen errentagarritasunari eragiten, ez baitziren kontuan izan erregimen ekonomikoa zehazteko orduan.

V

Errege lege-dekretu honen bidez, halaber, gizarte-bonuaren kostuaren ardura hartzeko erregimena aldatzen da.

Jakina da Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak 2012ko otsailaren 7an emandako epaiak, 419/2010 errekurtsio arrunta baietsi zuenak, hurrengo hauek ezin direla aplikatu adierazi zuela: alde batetik, apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren 2.5 artikulua eta bigarren xedapen iragankorraren azken lerroa (horren bidez, energia-sektorean zenbait neurri ezarri eta gizarte-bonua onartu ziren), sektoreko enpresa jakin batzuek gizarte-bonuaren kostua beren gain hartzearen ingurukoak; eta, bestetik, ekainaren 26ko ITC/1723/2009 Aginduaren bigarren xedapen gehigarria (2009ko uztailaren 1etik aurrerako sarrera-bidesariak eta erregimen bereziko instalazio jakin batzuen tarifak eta primak berrikustekoa), gizarte-bonuaren finantzaketa-mekanismoa garatzen duena, eta aipaturiko aginduaren hirugarren xedapen gehigarria, erreferentziako tarifak biltzen dituena, horiek aplikatzeko.

Hori dela-eta, apirilaren 25eko IET/843/2012 Aginduaren bidez (2012ko apirilaren 1etik aurrerako sarrera-bidesariak eta erregimen bereziko instalazioen zenbait tarifa eta prima ezartzen dituena), gizarte-bonua sistema elektrikoaren kostu gisa ezarri zen, eta, horrela, kontsumitzaile elektriko guztiek estalia, eta gizarte-bonua aplikatzeko erreferentziako tarifak zehaztu ziren. Modu horretan, aipaturiko epaia bete nahi izan zen, eta elektrizitate-horniketaren eskubidea babesteko adierazitako neurri gehigarriari jarraitutasuna eman, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72/EE Zuzentarauaren esparruan (elektrizitatearen barne-merkatu arau komunei buruzkoa, 2003/54/EE Zuzentaria indargabetzen duena).

Hala eta guztiz ere, konponbide horrek, 2012ko otsailaren 7ko Epaiak zehaztutako egoera berria lehenbailehen konpontzeko hartu zenak eta, funtsean, gizarte-bonuaren kostua kontsumitzaileen multzoari zabaltzea ezartzen zuenak, ez zuen iraunkorra izateko xederik, eta bereziki desegokia da uneotan, sarrerak behera eta kostuak gora egiten ari direnean. Horrenbestez, neurri zuzentzaileak hartu ezean, desoreka berriak agertzeko arrisku larria dago.

Zentzu horretan, egia da 2012ko otsailaren 7ko Epaiak, kostuak banatzeko bestelako modalitate onargarri batzuk hautatzeko aukera baztertu gabe, Gobernuari ematen ziola egokien iritzitako modalitatea aukeratzeko ardura, besteak beste Zuzenbide konparatua izan daitezkeen konponbideen artean, sektore elektrikoak har dezan bere gain gizarte-prestazioa, edota, sektorearen atal batek.

Egoera horretatik abiatuta, eta sistemaren kostuak lehenbailehen murrizten laguntzeko, beharrezkotzat jotzen da apirilaren 25eko IET/843/2012 Aginduak kostuak banatzeko ezarritako erregimena aldatzea, eta, zerbitzu publikoaren obligazio gisa, gizarte-bonuaren kostua energia elektrikoaren ekoizti, banatu eta merkaturatzeko jarduerak gauzatzen dituzten sozietateen edo sozietate-taldeen enpresa nagusiei esleitzea, bertikalki integratutako taldeak direnean.

Enpresa horiei aipaturiko betebeharrak ezartzean, karga hori sektore elektrikoan parte hartzen duten enpresa-jarduerak nagusien artean banatzen da, zeharka bada ere. Garraio-jarduerak banaketa horretatik kanpo geldituko litzateke, baina salbuespen hori justifikatuta dago, monopolio legal gisa eta eskusiboki garatzen den jarduerak arautua delako. Izan ere, garraio-enpresa bakarrak ezin izango luke kontzeptu horrengatik bere gain hartu beharreko kostua merkaturatu berreskuratu –bai, ordea, aipaturiko sozietateek edo sozietate-taldeen–, eta horrek, azken buruan, neutralizatu egingo luke aldaketaren bidez lortu nahi den helburua.

Bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72/EE Zuzentaria jasotakoaren arabera, zerbitzu publikoaren betebeharrak argi eta garbi definitutakoak, gardenak, ez-baztertzailak eta kontrolagarriak izan behar dira. Horri jarraituz, kostuen banaketa ekitatiboa izan dadin, enpresa edo enpresa-talde

bakoitzak kostuak bere gain hartzean duen elkarrekiko partaidetza ehuneko honekiko proportzionala izan beharko da: banaketa-sareetara konektatutako horniketen kopurua eta merkaturatze-jardueraren bezeroen kopurua aintzat hartuta kalkulaturako zenbateko bati dagokion ehunekoa. Era berean, kostuen banaketa sektorearen baldintza zehaztutara etengabe egokitzen dela bermatzeko, eta horren ezagutza publikoa eta, hala balitz, kontrola ahalbidetzeko, hau ezartzen da: Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, urtero, aplikagarriak diren banaketa-ehunekoak kalkulatu dituela, eta horretarako erabilitako informazioa jakinaraziko duela. Nolanahi ere, Industria, Energia eta Turismoko ministroak beste ehuneko batzuk onartu ahal izango ditu gerora.

Horrez gain, gizarte-bonuak honako hauetan zehaztutakoarekin bat etorri beharko duela xedatzen da: Energiaren Estatu Idazkaritzaren 2009ko ekainaren 26ko Ebazpenen (gizarte-bonua martxan jartzeko prozedura zehazten duena) eta apirilaren 25eko IET/843/2012 Aginduaren laugarren eta bosgarren xedapen gehigarrietan (horietan, 2012ko apirilaren 1etik aurrerako sarrera-bidesariak eta erregimen bereziko instalazioen zenbait tarifa eta prima ezartzen dira).

VI

Halaber, errege lege-dekretu honek sarrera-bidesarien berrikuspenarekin, Autokontsumoaren Erregistroaren sorrerarekin eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarekin lotutako beste neurri batzuk jasotzen ditu.

Era berean, Industria, Energia eta Turismoko ministroak energia elektrikoaren sarrera-bidesariak berrikusiko dituela zehazten du. Neurri hori premiaz hartu da, energia elektrikoaren eskariak uste baino beherakada handiagoa izan duelako, eta errege lege-dekretu honetan jasotzen diren sistemaren kostu-partidei buruzko aldatetekin bat etortzeko.

Bestalde, azaroaren 27ko 54/1997 Legea aldatzearen bidez, Ordainsarien Erregimen Espezifikoaren Administrazio Erregistroa sortzen da. Erregistro hori behar-beharrezkoa da energia elektrikoa energia-iturri berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik abiatuta ekoizten duten instalazioei erregimen ekonomikoa behar bezala aplikatzeko eta horren jarraipena egiteko, haien ardura eskusiboki Estatuko Administrazio Orokorrari dagokionean. Erregistro hori, era berean, Ekoizpenerako Instalazioen Administrazio Erregistroarekiko independentea izan beharko da; azken horrek Estatuko Administrazio Orokorraren nahiz autonomia-erkidegoetako administrazioen mende dauden ekoizpen-instalazioei buruzko datuak biltzen ditu.

Era berean, Autokontsumoaren Erregistroa sortzen da, autokontsumoko hornikuntza-modalitateak dituzten kontsumitzaileen jarraipen egokia egiteko; erregistro hori ere funtsezkoa da kontsumitzaileen erregimen ekonomikoaren jarraipen egokia egiteko.

Arau honetan sortzen diren erregistroak ezinbestekoak dira berehala izapidetuko diren zenbait errege-dekretu onartzeko; xedapen horiek energia elektrikoa energia-iturri berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik abiatuta ekoizteko jarduera arautuko dute, eta autokontsumoa duten energia elektrikoaren bestelako hornikuntza-modalitateei aplikatzeko baldintzak zehaztuko dituzte.

Ondorioz, energiaren sektorean zenbait neurri hartu eta gizarte-bonua onartzeko apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua indargabetu egiten da (bi alderdiok gizarte-bonuaren kostuaren ardura hartzearekin lotuta daude), errege lege-dekretu honetan definitzen den aldi baterako erregimena eragotzi gabe.

Bestetik, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako aldi baterako erregimenaren zenbait alderdi argitu egiten dira, premiaz argitu ere, harik eta giza baliabideak eta baliabide material eta teknikoak Industria, Energia eta Turismo Ministerioari benetan eskualdatu arte. Arau iragankor horrek, energiaren sektoreko partaidetzari buruzkoak, ez du aldatzen aipaturiko legeak jakinarazpen horietarako ezarritako erregimen juridiko berria.

Errege lege-dekretu honetan xedatutako zenbait neurri ezarri ahal izateko, beharrezkoa da errege lege-dekretu honen eta azaroaren 27ko 54/1997 Legearen gaiak

erregelamendu bidez garatzea. Horregatik, espresuki ezarri beharra dago esparru horretan Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari eskatzen zaizkion txostenak premiaz igorriko direla, Elektrizitatearen Aholku Batzordeari entzunaldi-izapidearen bidez kontsulta egin ostean.

VII

Azkenik, errege lege-dekretu honek Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatzen du, ikatzaren gaineko zerga bereziari dagokionez.

Jasangarritasun energetikorako neurri fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legeak aldatu egin zuen Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea, eta ikatzaren gaineko karga, gigajoule bakoitzeko, 0,65 euroraino igo zuen. Hala ere, industria-sektorearen lehiakortasuna mantentzeko, eta antzeko helburu eta erabilera dituzten ikatza eta gas naturalaren kontsumitzaileak berdintasun-baldintzetan jartzeko, beharrezkotzat jotzen da gigajoule bakoitzeko 0,15 euroko karga-tasa murriztua ezartzea ikatzaren erabilera profesionalerako, baldin eta elektrizitatea sortzeko eta baterako sorkuntzako prozesuetan erabiltzen ez bada; hori guztia Europako Kontseiluaren 2003ko urriaren 27ko 2003/96/EE Zuzentarauak aurreikusitako esparruaren barruan, zeinaren bidez energia- eta elektrizitate-gaietarako Europako Erkidegoko zerga-erregimena berregituratzen baita.

Aurrekoaren ondorioz, eta helburuetan oinarritutako zergen bereizketa bermatze aldera, «erabilera profesionalerako ikatza» kontzeptuak zerga bereziak arautzeko legean zer adierazten duen zehaztea komeni da.

Era berean, energia elektrikoaren eta bero erabilgarriaren baterako sorkuntzako instalazio bati ikatz-horniketa egiten zaionean, ezinezkoa da amaierako kontsumitzaileak jasan beharreko tributu-karga zehatz-mehatz zenbatekoa den jakitea. Hortaz, zerga-karga hori errealitatera ahal den heinean egokitzeko, ikatz-kantitatearen behin-behineko banaketa-ehunekoa ezartzen da, eta horren gainean Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean araututako zerga-tasak ezarriko dira. Horregatik, beharrezkoa da, bateko, horniketa horiek egiten dituzten subjektu pasiboei dagokienez arauetan zerga jasateko espezialitatea zehaztea, eta, besteko, jasanarazitako kuoten zenbatekoa ikatzaren erabileraren behin betiko ehunekoari jarraikiz arautzeko beharra jasotzea.

Horrez gain, ikatzaren horniketarekin lotuta, subjektu pasiboei datuak oker jakinarazteagatik arau-hauste berri bat tipifikatzen da, gigajoule bakoitzeko 0,15 euroko zerga-tasa aplikatuta.

Ikatzen eta gas naturalaren kontsumitzaileak parekatzeko beharra dagoenez, badago neurri hori onartzeko aparteko eta premiazko beharrezana.

Hori guztia dela-eta, neurri hauek onartzeko orduan, izan, badira 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko xedatutako aparteko eta premiazko beharrezanak; batetik, krisi ekonomiko egoera honetan kontsumitzaileak babesteko, eta, bestetik, sistema elektrikoaren jasangarritasun ekonomikoa bermatzeko. Neurriok berehala indarrean sartzea ezinbestekoa da, arau-aldaketak eraginkortasuna izan dezan.

Horrenbestez, Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Industria, Energia eta Turismo ministroaren proposamenari jarraikiz, eta Ministroen Kontseiluak 2013ko uztailaren 12an eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea aldatzea.*

Hona nola geratzen den idatzita Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea:

Bat. 16. artikuluari paragrafo berria eranstean zaio, honako hau dioena:

«11. Garraioko eta banaketako jarduerok ordaintzeko metodologietan aintzat hartuko dira ondo kudeatutako enpresa efiziente batek jarduera hori egiteko beharrezkoak dituen kostuak, Espainia osoan homogeneoak izango diren oinarritzko irizpideak aplikatuta. Sare-jardueren erregimen ekonomikoei esker, ordainsaria arrisku txikiko jarduera batentzat egokia dena izango da. Horretarako, garraioko eta banaketako enpresen sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen aktiboaren finantza-ordainsariaren tasak erreferentzia gisa hartuko du Estatuaren hamar urterako betebeharrak bigarren mailako merkatuan duten errendimendua, diferentzial bat gehituta.»

Bi. Hona hemen nola geratzen den idatzita 30.4 artikulua:

«4. Sortutako energia merkatu-prezioan baloratuta saltzeagatik ordainsariaz gain, eta Ministroen Kontseiluak errege-dekretu bidez ezartzen dituen baldintzei jarraikiz, instalazioek ordainsari espezifikoak jaso ahal izango dute, honako hauek osatuko dutena: instalatutako potentzia-unitate bakoitzeko termino bat, hala badagokio, energiaren salmentaren bidez berreskuratu ezin daitezkeen ereduzko instalazio baten inbertsio-kostuak estaliko dituena, eta eragiketa-termino bat, hala badagokio, ereduzko instalazio horren ustiapen-kostuen eta merkatuan parte hartzeagatik lortzen dituen diru-sarreraren arteko diferentzia estaliko duena.

Ordainsari espezifiko hori kalkulatzeko, ereduzko instalazio batentzat, bere balio-bizitza arautzailean zehar eta ondo kudeatutako enpresa efiziente batek egindako jarduerari dagokionez, honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Sortutako energia ekoizpen-merkatuko prezioan baloratuta saltzeagatik lortutako sarrera estandarrak.
- b) Ustiapen-kostu estandarrak.
- c) Hasierako inbertsioaren balio estandarra.

Ondorio horietarako, ez dira aintzat hartuko Espainia osoan aplikatzekoak ez diren arau edo administrazio-egintzek zehaztutako kostuak edo inbertsioak. Era berean, energia elektrikoa ekoizteko jarduerarekin lotutako kostuak eta inbertsioak soilik hartuko dira aintzat.

Uharteetako eta penintsulatik kanpoko sistema elektrikoaren ezaugarri bereziak direla bide, salbuespen moduan, horietako bakoitzarentzat ereduzko instalazio espezifikoak definitu ahalko dira.

Ordainketa-erregimen horrek ez du gaudituko instalazioei merkatuan gainerako teknologiek berdintasunezko egoeran lehiatzea ahalbidetuko dieten kostuak estaltzeko beharrezkoa den gutxieneko maila, aplikagarria den kasu bakoitzean ereduzko instalazioa oinarritzat hartu eta arrazoizko errentagarritasuna lortzeko aukera emango dietenak. Aurrekoa gorabehera, ordainketa-erregimenak, salbuespenez, inbertsiorako eta epe zehatz batean gauzatzeko pizgarria aurreikusi ahal izango du, uharteetako eta penintsulatik kanpoko sistemen kostuak nabarmen murrizten dituenean.

Arrazoizko errentagarritasun horrek, zergak aplikatu baino lehen, Estatuaren hamar urterako betebeharrak bigarren mailako merkatuan duten batez besteko errendimendua izango du oinarri, diferentzial egokia aplikatuta.

Ordainketa-erregimenaren parametroak sei urtero berrikusi ahal izango dira.»

Hiru. Hona hemen nola geratzen den idatzita 30.5 artikulua lehenengo lerrokada:

«5. Gobernuak, autonomia-erkidegoekin eta Ceuta eta Melilla hiriekien kontsultatu ondoren, 4. paragrafoan aurreikusitako printzipioetan oinarritutako ordainsarirako eskubidea zehaztu ahal izango du energia elektrikoa kogenerazioaren bidez ekoizten duten instalazioentzat edo energia primario gisa energia berriztagarri ez-kontsumigarriak eta ez-hidraulikoak, biomasa, bioerregaiak edo nekazaritza-, abeltzaintza- edo zerbitzu-hondakinak erabiltzen dituztenentzat,

nahiz eta energia elektrikoa ekoizteko instalazioek 50 MW baino gehiagoko potentzia instalatua izan.»

Lau. 30. artikuluari 8. eta 9. paragrafoak eransten zaizkio, honako hau diotenak:

«8. Lege honen ondorioetarako, biomasatzat hartuko da nekazaritzako jardueretatik (landareetatik eta animalietatik eratorritako substantziak barne), basogintzatik eta horrekin lotutako industrietatik (arrantza eta akuikultura barne) sortutako jatorri biologikoko produktuen eta hondakinen zatiki biodegradagarria, baita industriaren eta udalen hondakinen zatiki biodegradagarria ere.

9. Energia elektrikoa iturri berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik abiatuta ekoizten duten instalazioei ordainsari espezifikoak emateko eta haren jarraipen egokia egiteko, Ordainsarien Erregimen Espezifikoaren Erregistroa sortzen da Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren barruan, eta instalazio horiei aplikatzekoak zaizkien ordainsari-parametroak hartuko ditu.

Erregistroaren antolakuntza erregelamendu bidez zehaztuko da, bai eta bertan izena emateko nahiz izen-ematea bertan behera uzteko prozedurak eta efektuak ere.

Instalazio bati ordainketa-erregimen espezifikoak aplikatzeko, beharrezkoa izango da instalazio hori Ordainsarien Erregimen Espezifikoaren Erregistroan izena emanda egotea.»

Bost. Hona nola geratzen den idatzita hogeita batgarren xedapen gehigarriaren 4. paragrafoa:

«4. Nolanahi ere, dagozkion sarrera-bidesariak onartzeko xedapenean 2009, 2010, 2011 eta 2012rako aurreikusitako diru-sarreraren defizita ez da izango, hurrenez hurren, 3.500 milioi euro, 3.000 milioi euro, 3.000 milioi euro eta 1.500 milioi euro baino gehiagokoa.

Era berean, 2010erako eta 2012rako sistema elektrikoaren likidazio-sistemako diru-sarreraren defizit gisa hartuko dira 2010ean gertatzen diren sistema elektrikoaren likidazioen aldi baterako desorekak –gehienez ere 2.500 milioi eurora arte– eta 2012an gertatzen direnak –gehienez ere 4.109.213 mila eurora arte–, eta defizit horrek titularrek Sistema Elektrikoaren Defizita Titulizatzeko Funtzari laga ahalko dizkieten kobrantza-eskubideak eragingo ditu; lagapenaren ondorioetarako, 2012. urterako zenbatekoa behin betikotzat joko da.»

Sei. Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria eransten zaio; hona hemen testua:

«Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Energia Elektrikoaren Autokontsumoaren Administrazio Erregistroa.*

Lege honen 9.g) artikuluan aurreikusitako energia elektrikoaren horniketa-modalitateak dituzten kontsumitzaileen eta beren instalazio-sarearen barruan edo zuzeneko lerro baten bidez konektatuta dauden ekoizpen-instalazioei lotuta dauden bestelako kontsumitzaileen jarraipen egokia egiteko, Energia Elektrikoaren Autokontsumoaren Administrazio Erregistroa sortzen da Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren barruan. Erregistro horrek kontsumitzaileei eta lotutako instalazioei buruzko informazioa bilduko du.

Erregistroaren antolakuntza erregelamendu bidez zehaztuko da.»

2. artikulua. *2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legea aldatzea.*

2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legea aldatu egiten da:

Bat. Hona nola geratzen den idatzita 54. artikuluaen Bat paragrafoa:

«Bat. Estatuko Administrazio Orokorrak 2013ko ekitaldian emango dituen abalen gehieneko zenbatekoa 165.043.560 mila eurokoa izango da.»

Bi. 54. artikuluaen Bi paragrafoari d) lerrokada eransten zaio; honela dio:

«d) 4.000.000 mila euro, Sistema Elektrokoaren Defizita Titulizatzeko Funtsari eska dakizkiokeen betebeharrak ekonomikoak bermatzeko, Sektore Elektrokoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita bat.9 xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz. Betebeharrak horien jatorria funtsaren aktiboa osatzen duten kobrantza-eskubideen kontura funtsak berak egiten dituen finantza-tresnen jaulkipenak izango dira.»

3. artikulua. *Energia elektrikoa banatzeko eta garraiatzeko jardueraren ordainsaria, 2013ko urtarrilaren 1etik errege lege-dekretu hau indarrean sartu bitartean.*

1. Banaketa-enpresa bakoitzaren ordainsaria, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera eta errege lege-dekretu hau indarrean sartu bitartean, otsailaren 14ko IET/221/2013 Aginduaren 2.2 eta 2.3 artikuluetan ageri denaren zati proportzionala izango da, aipatutako datara bitartekoa. Ordainsaria behin betikoa izango da.

Aurrekoa gorabehera, errege lege-dekretu hau indarrean sartu baino lehen 2013rako ordainsaria berrikusteko eskaera egin duten enpresen kasuan –bai otsailaren 14ko IET/221/2013 Aginduaren I. eranskinean jasotakoaren babesean, bai banaketa-enpresen fusio edo eskurapenak gauzatzearen nahiz beste enpresa batzuen banaketa-aktiboak eskuratzearen ondorioz–, lehenengo epe horretako ordainsaria aldatu ahal izango zaie, Industria, Energia eta Turismoko ministroak hala aginduta, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena egin ondoren.

2. Garraio-instalazioen enpresa titular bakoitzaren ordainsaria, 2013ko urtarrilaren 1etik errege lege-dekretu hau indarrean sartu bitartean, otsailaren 14ko IET/221/2013 Aginduaren 2.2 eta 2.3 artikuluetan xedatuta dagoen ordainsariaren zati proportzionala izango da, aipatutako datara bitartekoa. Ordainsaria behin betikoa izango da.

4. artikulua. *Energia elektrikoa banatzeko jarduera ordaintzeko metodoa.*

1. Industria, Energia eta Turismoko ministroak, aldez aurretik Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Batzorde Delegatuak hala adostuta, banaketa-enpresa bakoitzarentzako ordainsaria onartuko du, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta 2013ko abenduaren 31ra arteko eperako. Denbora-tarte horrek 2013ko bigarren epea izena jasoko du.

Horretarako, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak enpresa bakoitzarentzako ordainketa-proposamena igorriko dio, lehenbailehen, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, txostena egin dezan. Proposatutako ordainsariak I. eranskinean xedatutako metodologia aplikatuz kalkulatuko dira.

Kalitatea bultzatzeko eta galerak murrizteko kalkulatu eta onartuko diren pizgarrien kantitateei kalterik egin gabe, banaketa-jarduerari dagokionez aipatutako metodologiari jarraikiz kalkulatu eta ordainsariak behin betikoak izango dira.

2. 2014ko urtarrilaren 1etik lehenengo epe arautzailea hasten den arte jaso beharreko ordainsaria kalkulatzeko (martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan aipatzen den banaketa-jardueraren ordainsariari buruzko errege lege-dekretuaren babesean), errege lege-dekretu honen II. eranskinean bildutako metodologiari jarraituko zaio.

Kalitatea bultzatzeko eta galerak murrizteko kalkulatu eta onartuko diren pizgarrien kantitateei kalterik egin gabe, banaketa-jarduerari dagokionez aipatutako metodologiari jarraikiz kalkulatu eta ordainsariak behin betikoak izango dira.

Industria, Energia eta Turismoko ministroak, aldez aurretik Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Batzorde Delegatuak hala adostuta, epe horretarako ordainsaria onartuko du. Horretarako, urte bakoitzeko urriaren 1a baino lehen, Merkatuen eta Lehiaren

Batzorde Nazionalak banaketa-enpresa bakoitzarentzako ordainketa-proposamena igorriko dio Industria, Energia eta Turismo Ministerioari.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, aurreko paragrafoan aipatutako enpresa bakoitzarentzako ordainketa-proposamenarekin batera, hura kalkulatzeko beharrezkoak diren II. eranskineko parametro guztien proposamena igorriko dio ministerioari.

3. Enpresa jakin baten ordainsaria kalkulatzeko I. eta II. eranskinetan xedatutakoaren arabera beharrezkoa den daturen bat edukiko ez balitz, sektorearen batez besteko balio adierazgarriak erabiliko dira hura kalkulatzeko.

5. artikulua. *Energia elektrikoaren garraioa ordaintzeko metodoa.*

1. Industria, Energia eta Turismoko ministroak, aldez aurretik Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Batzorde Delegatuak hala adostuta, garraio-instalazioen enpresa titular bakoitzarentzako ordainketa onartuko du, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta 2013ko abenduaren 31ra arteko eperako. Denbora-tarte horrek 2013ko bigarren epea izena jasoko du.

Horretarako, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak enpresa bakoitzarentzako ordainketa-proposamena igorriko dio lehenbailehen Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, txostena egin dezan. Ordainsaria III. eranskinetan xedatutako metodologia aplikatzearen bidez kalkulatu da.

Erabilgarritasuna, inbertsioa eta mantenua bultzatzeko kalkulatu eta onartuko diren pizgarrien kantitateei kalterik egin gabe, eta 2011ko abenduaren 31 baino lehen zerbitzuan jarritako eta berezizat jotakoei dagokienez, garraio-jarduerari dagokionez aipatutako metodologiari jarraikiz kalkulatuak ordainsariak behin betikoak izango dira.

2. 2014ko urtarrilaren 1etik lehenengo epe arautzailea hasten den arte jaso beharreko ordainsaria kalkulatzeko (martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluan aipatzen den garraio-jardueraren ordainketari buruzko errege lege-dekretuaren babesean), errege lege-dekretu honen IV. eranskinetan bildutako metodologiari jarraituko zaio.

Garraio-sarearen erabilgarritasuna bultzatzeko pizgarriari dagokionez kalkulatuak diren kantitateei kalterik egin gabe, aipatutako metodologiari jarraikiz kalkulatuak ordainsariak behin betikoak izango dira.

Industria, Energia eta Turismoko ministroak onartuko du epe horretarako ordainsaria, aldez aurretik Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Batzorde Delegatuak hala adostuta. Horretarako, urte bakoitzeko urriaren 1a baino lehen, Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak garraio-instalazioen enpresa titular bakoitzarentzako ordainketa-proposamena igorriko dio Industria, Energia eta Turismo Ministerioari.

Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, aurreko paragrafoan aipatutako enpresa bakoitzarentzako ordainketa-proposamenarekin batera, hura kalkulatzeko beharrezkoak diren IV. eranskineko parametro guztien proposamena igorriko dio.

3. III. eta IV. eranskinetan aurreikusitakoari jarraikiz, enpresa jakin baten ordainsaria kalkulatzeko beharrezko daturen bat edukiko ez balitz, sektorearen batez besteko balio adierazgarriak erabiliko lirateke hura kalkulatzeko.

6. artikulua. *Ordainketa-tasa, errege lege-dekretu honen sare-jarduerak ordaintzeko metodoak indarrean dauden bitartean.*

1. Errege lege-dekretu honen 4. eta 5. artikulua aplikagarriak diren epearen barruan, hauxe izango da energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen aktiboaren ordainketa-tasa, eta ondorioak izango ditu errege lege-dekretu hau indarrean sartzen denetik jaso beharreko ordainsarian: Estatuaren hamar urterako betebeharrak bigarren mailako merkaturaren duten errendimenduaren batez bestekoa gehi diferentzial bat, araua indarrean sartu aurreko hiru hilabeteotan zehar.

2. 2013ko bigarren epean (errege lege-dekretu hau indarrean sartzen denetik 2013ko abenduaren 31ra bitartean) garraio- eta banaketa-ordainsariak kalkulatzeko, aurreko paragrafoan adierazitako finantza-ordainsariaren tasan, diferentzialak oinarrizko 100 puntuko balioa hartuko du.

3. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, errege lege-dekretu honen 4.2 eta 5.2 artikulua aplikagarriak izango diren bitartean jaso beharreko ordainsaria kalkulatzeko, lehenengo paragrafoan adierazitako finantza-ordainsariaren tasan, diferentzialak oinarrizko 200 puntuko balioa hartuko du.

7. artikulua. *Inbertsiorako pizgarria.*

1. Ekoizpen-instalazioen ahalmena areagotzeko epe luzerako inbertsioetarako pizgarriaren zenbatekoa urteko 10.000 €/MW izango da, 2007ko urriaren 1etik aurrerako tarifa elektrikoak berrikusten dituen irailaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduaren III. eranskinean ezarritakoari jarraikiz.

2. Errege lege-dekretu hau indarrean sartzean pizgarri hartarako eskubidea duten instalazioen kasuan, 2007ko urriaren 1etik aurrerako tarifa elektrikoak berrikusten dituen irailaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduaren III. eranskinak aipatutako hamar urteko aldia betetzeko geratzen zaien epearen halako bitan izango dute zenbatekoa jasotzeko eskubidea. Hura kalkulatzeko, errege lege-dekretu hau indarrean sartzen den data hartuko da hasierako data gisa, eta formula hau erabiliko da:

$$\text{Kobratzeko epea} = (\text{AmaiData} - \text{HasiData}) * 2$$

Eta:

Kobratzeko epea: errege lege-dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera, epe luzerako ahalmen zerbitzuaren ordainsaria jasotzeko eskubidea izango den epea, egunetan adierazita.

AmaiData: instalazio bakoitzari 10 urteko epea amaitzen zaion data; epe hori irailaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduaren III. eranskinean xedatutakoari jarraikiz ezarri da.

HasiData: errege lege-dekretu hau indarrean sartzen den data.

3. Errege lege-dekretu hau indarrean sartzean Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren mendeko Energia Elektrikoa Ekoizteko Instalazioen Administrazio Erregistroaren lehenengo atalean behin betiko izena emanda ez dauden ekoizpen-instalazioek ez dute aipatutako pizgarria jasotzeko eskubiderik izango, abenduaren 27ko ITC/2794/2007 Aginduaren babespean; nolahi ere, salbuespen izango dira martxan jartzeko behin betiko akta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa dutenak, horiek urtean 10.000 €/MW jasotzeko eskubidea izan ahalko baitute, hogeituz.

8. artikulua. *Gizarte-bonuaren kostuaren banaketa.*

1. Gizarte-bonuaren kostua sozietate-taldeek edo, hala badagokio, sozietateen matrizeek hartuko dute beren gain, energia elektrikoa ekoizteko, banatzeko eta merkaturatzeko jarduerak aldi berean garatzen dituztenean.

2. Finantzatu beharreko kantitateak banatzeko ehunekoa, enpresa-talde bakoitzarentzat, bi terminoren arteko erlazio gisa kalkulatu da. Termino bat izango da banaketa-enpresen banaketa-sareetara konektatutako horniketa kopuruaren eta taldeak parte hartzen duen enpresa merkaturatzaileen bezero kopuruaren urteko batez bestekoen batura, eta, beste terminoa, aldiz, banaketa honen ondorioetarako kontuan hartu beharreko enpresa-taldeen horniketen eta bezeroen urteko batez besteko balioen batura.

Banaketa-ehuneko hori Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak kalkulatu du, urtero. Ondorio horietarako, aipaturiko batzordeak, urtero, azaroan, banaketa-enpresen banaketa-sareetara konektatutako horniketen kopuruaren eta enpresa merkaturatzaileen bezero kopuruaren urteko batez bestekoei buruzko informazioa argitaratu du bere

webgunean, bai eta 1. paragrafoan aurreikusitako baldintza betetzen duten sozietate-taldean edo, hala badagokio, sozietateen zerrenda ere.

Urtero, abenduaren 1a baino lehen, aipaturiko batzordeak enpresa matrize bakoitzarentzako banaketa-ehunekoak ezartzeko proposamena igorriko dio Industria, Energia eta Turismo ministroari, onspena eman diezaion. Ministroak agindu baten bidez emango du onspena, eta Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Enpresa haietako bakoitzak egin beharreko ekarpena erakunde likidatzaileak xede horretarako berariaz sortutako gordailu-kontu batean sartuko da; erakunde likidatzailea arduratuko da kontua kudeatzeaz.

3. Industria, Energia eta Turismo ministroaren aginduz, aldatu egin ahal izango dira enpresa bakoitzaren ekarpenak egiteko prozedura eta baldintzak.

9. artikulua. *Energia elektrikoaren sarrera-bidesarien prezioak berrikustea.*

Salbuespen gisa, araututako kostuei edo kostu horiek kalkulatzeko parametroei nabarmen eragiten dieten egoerak sortuz gero, Industria, Energia eta Turismo ministroak sarrera-bidesarien potentzia-terminoen eta energia aktiboaren terminoen prezioak berrikusi ahal izango ditu, gehienez ere hiru hilabetean behin, alde zuzenetik Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Batzorde Delegatuak hala adostuta.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Erregimen ekonomiko primaturako eskubidea duten ekoizpen-instalazioen arrazoizko errentagarritasuna.*

Azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 30.4 artikulua azken-aurreko lerrokadan aurreikusitakoaren ondorioetarako, errege lege-dekretu hau indarrean sartzean erregimen ekonomiko primaturako eskubidea duten instalazioen kasuan, arrazoizko errentagarritasunak honako hau izango du oinarri, zergak kontuan hartu gabe: Estatuaren hamar urterako betebeharrekin bigarren mailako merkatuan azken hamar urteetan izandako batez besteko errendimendua, 300 oinarrizko puntutan handituta; hori guztia, aipatutako artikulua azken lerrokadan xedatutako berrikuspenari kalterik egin gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. *Txostenen premiazko izaera.*

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak premiazko izaerarekin eta gehienez 15 eguneko epean egingo ditu Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eskatutako txostenak, txosten horien gaia errege lege-dekretu honetan eta Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen araututakoarekin lotuta dagoenean; aipatutako batzordeak, txostena egin baino lehen, kontsulta egingo dio Elektrizitatearen Aholku Batzordeari. Azken xedapenetako laugarrenean jasotako kasuan, txostena egiteko epea 7 egunekoa izango da.

Txostena eskatzeko idazkian bertan, espresuki adierazi behar da txostenaren premiazko izaera.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Energiaren sektorean partaidetzak bereganatzeko eragiketak aztertze eskumena.*

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak izango du energiaren sektorean partaidetzak bereganatzeko eragiketak aztertze eskumena, harik eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eskumena eraginkortasunez gauzatzeko beharrezko bitartekoak eduki arte, aipaturiko legearen hirugarren eta laugarren xedapen iragankorretan aurreikusitakoa betez.

Presidentetzako Ministerioaren titularraren agindu batean zehaztuko da zein egunetan hasiko den Industria, Energia eta Turismo Ministerioa eskumen hori gauzatzeko, bai eta ekainaren 4ko 3/2013 Legeak esleitzen dizkion gainerakoak ere; agindu hori prestatzeko, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak eta

Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioko titularrek batera egindako proposamenen oinarrituko da Presidentetzako Ministerioaren titularra.

Data horretara arte, helburu harekin egin beharreko komunikazioak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari bidaliko zaizkio, eta batzorde hori arduratuko da adierazitako partaidetzak bereganatzeko eragiketen gaineko ebazpenak emateaz, ekainaren 4ko 3/2013 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritako baldintzetan.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak izango du komunikazio-betebeharraren ez-betetzea eta komunikazio-eragiketen mende dauden sozietateei ezarritako baldintza eta betebeharren ez-betetzea zehatzeko eskumena; aurreko paragrafoan aurreikusitako agindua ondorioak izaten hasten den datatik aurrera, berriz, Estatuko Administrazio Orokorrak.

3. Ekainaren 4ko 3/2013 Legea indarrean sartu ostean hasitako prozedurak xedapen honetan ezarritakoari jarraikiz izapidetu eta ebatziko dira.

Laugarren xedapen gehigarria. *Sorkuntza-gainkostuaren finantzazioa uharteetako eta penintsulatik kanpoko lurraldeetan.*

Energia elektrikoa ekoizteko jarduerak sortutako gainkostuak Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko dira, ehuneko 50ean, jarduerok uharteetako eta penintsulatik kanpoko lurraldeetan garatzen direnean, Sektore Elektriakoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 12.3 artikuluari jarraikiz. Ondorio horietarako, urte bakoitzari dagozkion gainkostuak hurrengo urterako aurrekontu orokorren legean txertatuko dira, bertan ezarritako baldintzetan.

Aurrekontu-konpentsazioak ez dira sistema elektrikoaren kostutzat hartuko. Aurrekontu-konpentsazioak kontrolatzeko eta aintzatesteko mekanismoa eta konpentsazio horiek likidatzeko prozedura erregelamendu bidez zehaztuko dira, Estatuko Administrazio Kontu-hartzaitza Nagusiaren partaidetzarekin.

Nolanahi ere, likidazioaz arduratzen den erakundeak kudeatutako sistema elektrikoaren likidazio-funtsak finantzaketa-mekanismo subsidiario gisa jardungo du, eta, ondorio horietarako bakarrik, sistema elektrikoaren kostu gisa hartuko da.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari egindako aipamenak.*

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala martxan jartzen den arte, errege lege-dekretu honetan Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari egindako aipamenak Energiaren Batzorde Nazionalari egitean zaizkiola joko da.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Gizarte-bonuaren karakterizazioa eta bere kostuaren banaketa.*

1. 2014ko uztailaren 1a baino lehen, gizarte-bonuaren karakterizazioa berrikusi egin beharko da. Berrikuspen hori egiten den arte, gizarte-bonuaren karakterizazioak bat etorri beharko du honako hauetan ezarritakoarekin: apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra, zeinaren bidez energiaren sektorean zenbait neurri hartu eta gizarte-bonua onartzen baita; Energiaren Estatu Idazkaritzaren 2009ko ekainaren 26ko Ebazpena, gizarte-bonua martxan jartzeko prozedura ezartzen duena; eta 2012ko apirilaren 1etik aurrerako sarrera-bidesariak eta erregimen bereziko instalazioen zenbait tarifa eta prima ezartzen dituen apirilaren 25eko IET/843/2012 Aginduaren laugarren eta bosgarren xedapen gehigarriak.

2. Errege lege-dekretu honen 8. artikuluan ezarritakoa lehenbailehen aplikatze aldera, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, 2013ko irailaren 15a baino lehen, aipaturiko artikulua erreferentzia egiten dien finantzaketa-ehunekoak finkatzeko proposamena bidaliko dio Industria, Energia eta Turismo ministroari, agindu baten bidez onar dezan; agindu hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Aipaturiko agindua

onartu arte, gizarte-bonuaren kostua sistemaren kontura finantzatuko da, apirilaren 25eko IET/843/2012 Aginduak xedatutakoa betez.

Aipaturiko batzordeak banaketa-enpresen banaketa-sareetara konektatutako horniketen kopuruaren eta enpresa merkaturatzaileen bezeroen kopuruaren urteko batez bestekoei buruzko informazioa erabiliko du, eskuragarri dauden azken hamabi hilabeteotakoa, eta bere webgunean argitaratuko du; halaber, aipatutako 8. artikuluko baldintza betetzen duten sozietate-taldeen edo, hala badagokio, sozietateen zerrenda ere argitaratuko du.

Bigarren xedapen iragankorra. *Ordainsariaren kontu-likidazioa 2013ko bigarren ordainketa-epean, garraio- eta banaketa-jarduerentzat.*

4.1 eta 5.1 artikuluetan aipatutako 2013ko bigarren epe arautzaileko ordainsariak onartu arte, bigarren epeko ordainsarien likidazioetan behin-behinean aintzat hartu beharko diren kantitateak aipaturiko 4.1 artikuluan bigarren lerroak eta 5.1 artikuluan bigarren lerroak aipatutako ordainketa-proposameneko ordainsariaren zati proportzionala izango dira, banaketa- eta garraio-enpresa bakoitzarentzat.

Dagozkion ministro-aginduak onartu ostean, eurak aplikatzearen ondoriozko ordainketa-betebeharrak edo, hala badagokio, kobrantza-eskubideak likidatuko dira, aginduak onartu ostean horietaz arduratzen den erakundeak egingo duen hurrengo likidazioaren kontura. Zenbatekook sistemaren sarrera edo kostu likidagarritzat hartuko dira, sistema elektrikoaren kostuak likidatzeko prozeduran aurreikusitako ondorioetarako.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Honako hauek aldi baterako aplikatzea: energiaren sektorean zenbait neurri hartu eta gizarte-bonua onartzen duen apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua; energia elektrikoa erregimen berezian ekoiztea arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretua; eta irailaren 26ko 1578/2008 Errege Dekretua, energia elektrikoa sortzeko jardueren ordainsariak ezartzen dituen, hura eguzki-teknologia fotovoltaikodun instalazioen bidez sortu denean, maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuak teknologia horretarako ezartzen dituen ordainsarien amaierako data igaro osteko instalazioentzat.*

1. Xedapen indargabetzaile bakarraren 2. paragrafoan zehaztutakoa gorabehera, errege lege-dekretu honen azken xedapenetako bigarrenak adierazitako errege lege-dekretua osotasunean aplikatu ahal izateko beharrezko diren xedapenak onartu arte, honako arau hauek aldi baterako aplikatuko dira: energiaren sektorean zenbait neurri hartzeko eta gizarte-bonua onartzeko apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua, energia elektrikoa erregimen berezian ekoiztea arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretua eta irailaren 26ko 1578/2008 Errege Dekretua (energia elektrikoa sortzeko jardueren ordainsariak ezartzen dituen, hura eguzki-teknologia fotovoltaikodun instalazioen bidez sortu denean, maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuak teknologia horretarako ezartzen dituen ordainsarien amaierako data igaro osteko instalazioentzat); salbuespen izango dira 28. artikulua eta maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuaren V. eranskinean jasotako potentzia-faktorearen tartea (0,995 inдуктiboaren eta 0,995 kapazitiboaren artekoa) betetzeagatik hobari-ehunekoa.

2. Likidazioaz arduratzen den erakundeak ordainduko ditu, konturako ordainketa gisa, erregimen bereziko instalazioek eta maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuaren babespean ordainketa-erregimen primatua duten erregimen arruntekoek sortutako likidazio-kontzeptuak, aipaturiko errege-dekretuetan xedatutakoa aplikatuz.

Errege lege-dekretu hau indarrean sartzen denetik ordainketa-erregimen berria osotasunean aplikatzeko beharrezko xedapenak indarrean sartu arte ekoizten den energiari azken xedapenetako bigarrenen ezarritako metodologia aplikatzearen ondorioz sortzen diren kobrantza-eskubideak edo ordainketa-betebeharrak horietaz arduratzen den erakundeak likidatuko ditu, aipaturiko xedapenak indarrean sartu eta hurrengo sei likidazioetan. Edozein kasutan ere, likidaziook ekitaldi berekoak izango dira, eta

zenbatekook sistemaren sarrera edo kostu likidagarritzat hartuko dira, kasuan kasu, sistema elektrikoaren kostuak likidatzeko prozeduran aurreikusitako ondorioetarako.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

1. Indargabetuta gelditzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen edo kontraesanean dauden lerrun bereko nahiz beheragoko arau guztiak.
2. Espresuki indargabetuta gelditzen dira:

a) Energia elektrikoa erregimen berezian ekoizteko jarduera arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretua.

b) Irailaren 26ko 1578/2008 Errege Dekretua, energia elektrikoa sortzeko jardueren ordainsariak ezartzen dituena, hura eguzki-teknologia fotovoltaikodun instalazioen bidez sortu denean, maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuak teknologia horretarako ezartzen dituen ordainsarien amaierako data igaro osteko instalazioentzat.

c) Energiaren sektorean zenbait neurri hartu eta gizarte-bonua onartzeko apirilaren 30eko 6/2009 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua, lehenengo xedapen gehigarria eta bosgarren xedapen iragankorraren 2. paragrafoa.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1.13 eta 25. artikuluen babespean eman da; artikulua horiek jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak ezartzeko eta koordinazioa egiteko, eta meatzeen eta energiaren erregimenaren oinarriak zehazteko eskumen eskusiboa esleitzen diote Estatuari, hurrenez hurren.

Aurrekoa gorabehera, azken xedapenetako bosgarrena Konstituzioaren 149.1.14 artikulua ezarritakoaren babesean eman da; artikulua horrek Ogasun Nagusiaren arloko eskumena esleitzen dio Estatuari.

Azken xedapenetako bigarrena. *Energia elektrikoa iturri berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik abiatuta ekoizteko erregimen ekonomiko primatuko jardueraren erregimen juridiko eta ekonomiko berria.*

Gobernuak, Industria, Energia eta Turismoko ministroak hala proposatuta, energia elektrikoa iturri berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik abiatuta ekoizten duten erregimen ekonomiko primatuko instalazioen erregimen juridiko eta ekonomiko berria arautzeko errege-dekretu bat onartuko du, gaur egungo instalazioen ordainsari-eredua aldatuko duena.

Eredu berri hori bat etorriko da errege lege-dekretu honek txertatutako eta Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 30. artikulua aurreikusitako irizpideekin, eta errege lege-dekretu hau indarrean sartu orduko aplikatuko da.

Aurrekoa gorabehera, energia elektrikoa erregimen berezian ekoizteko jardueraren hainbat alderdi arautu eta aldatzen dituen azaroaren 19ko 1565/2010 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregimenaren esleipendun diren eguzki-energia termoelektrikoko instalazioentzat ezarriko den ordainketa-erregimen espezifikoa eragiketa-termino bakarra izango du, eta bere balioa instalazioak esleipendun izango diren eskaintza ekonomikoen emaitza izango da.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Otsailaren 29ko 325/2008 Errege Dekretua aldatzea, zeinaren bidez energia elektrikoa garraiatzeko jardueraren ordainsaria ezartzen baita 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera zerbitzuan jarritako instalazioentzat.*

Hona nola geratzen den idatzita otsailaren 29ko 325/2008 Errege Dekretua, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera zerbitzuan jarritako instalazioentzat energia elektrikoa garraiatzeko jardueraren ordainsaria ezartzen duena:

Bat. Hona nola geratzen den idatzita 4.1 artikulua:

«1. Baimendutako instalazio bakoitzaren ibilgetuaren elementuaren (VI) inbertsioaren behin betiko balio aitortua, Gobernuak erregelamendu bidez zehaztutako erreferentziako balio unitarioak aplikatzearen emaitza denean, honela kalkulatu da: egindako inbertsioaren benetako balioaren batura, behar bezala ikuskatuta, gehi zehaztuko diren balio unitarioak aplikatzearen emaitzaren eta aipaturiko benetako balioaren arteko diferentziaren ehuneko 50. Kalkulu hori diferentzia positiboa zein negatiboa izanda egingo da. Gainera, diferentzia negatiboa izanez gero, ikuskaritza tekniko egin beharko da. Horrek justifikatuko du sortutako kostuak balio unitarioak baino handiagoak direla, beren ezaugarri bereziak direla eta.

Erreferentziako balio unitarioak sistema elektrikoan erabilitako estandarrekin bat datozen diseinu tekniko eta eragiketa-baldintzak dituzten azpiegituren kostuen batez besteko balio adierazgarrien arabera zehaztuko dira.

Penintsulako sistemarentzat kalkulatuako erreferentziako balio unitarioak Espainia osoan aplikatuko dira, hurrengo lerrokadan xedatutakoa eragotzi gabe.

Industria, Energia eta Turismoko ministroaren aginduz, uharteetako eta penintsulatik kanpoko sistema elektrikoetan garraio-saretzat hartzen diren instalazioentzako erreferentziako balio unitarioak ezarriko dira. Lurralde-kokapenak eragindako ezaugarri bereziak direla bide, balio unitariook ezberdinak izan ahalko dira ondorio hauetarako zehazten diren sistema edo azpisistema bakoitzarentzat. Hala ere, azpisistema bakoitzak balio bakarra eduki ahal izango du.

Benetako inbertsio-balioak kalkulatzeko, indarreko zerga-araudiaren bidez salbuestea edo itzultzea aurreikusita dauden zeharkako zergak kenduko dira. Era berean, administrazio publikoek emandako diru-laguntzak kenduko dira, bai eta, hala badagokio, hirugarrenek finantzatutako eta lagatutako instalazioak ere. Europar Batasuneko erakundeetatik datozen diru-laguntzen kasuan, jasotako zenbatekoaren ehuneko 90 deskontatuko da.

Gauzate-proiektua onartzean, inbertsio-kostuen eta eragiketa- eta mantentze-kostuen erreferentziako balio unitarioak kalkulatzeko beharrezko parametroak zehaztuko dira.»

Bi. Hona nola geratzen den idatzita 4.2 artikulua azken lerrokada:

«Balio unitarioak lau urtean behin berrikusiko dira. Berrikuspenera egiteko, sistema elektriko nazionalan erabilitako estandarrekin bat datozen diseinu tekniko eta eragiketa-baldintzak dituzten azpiegituren kostuen batez besteko balio adierazgarriak aintzat hartuko dira. Baliook berdinak izango dira penintsula osoan, bai eta ondorio hauetarako zehaztuko diren sistema edo azpisistema guztietan ere.»

Hiru. Hona nola geratzen den idatzita 6.5 artikulua:

«5. Benetako inbertsioaren behin betiko balioak ezagutu ostean, Industria, Energia eta Turismoko ministroak zehaztuko du energia elektriko garraiatzeko instalazioen enpresa titular bakoitzak jasoko duen behin betiko ordainsaria. Erakunde likidatzaileak, ordainsaria onartu eta hurrengo likidazioan, konturako ordaintzen eta behin betikoaren arteko diferentziak likidatuko ditu, ordainsariok sortu ziren datatik.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Energia elektrikoaren sarrera-bidesarien prezioak berrikustea.*

Errege lege-dekretu honen 9. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, Industria, Energia eta Turismoko ministroak, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Batzorde Delegatuak alde zuzenetik halaxe adostuta, eta errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta gehienez hilabeteko epean, saretarako sarrera-bidesarien potentzia-terminoen eta energia

aktiboaren terminoen prezioak berrikusiko ditu; prezio horiek Sektore Elektriakoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean eta hura garatzeko araudian daude definituta.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatzea.*

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea honela aldatzen da:

Bat. Aldatu egiten da 84. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«84. artikulua. *Zerga-tasak.*

1. Zerga honako epigrafeei jarraikiz eskatuko da:

1.1 epigrafea: Erabilera profesionaletarako ikatza, baldin eta energia elektrikoaren baterako sorkuntzako edota zuzeneko nahiz zeharkako sorkuntzako prozesuetan erabiltzen ez bada: 0,15 euro gigajouleko.

Epigrafe honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, erabilera profesionaletarako ikatz gisa hartuko dira industriako fabrika eta instalazioetan kontsumitzeko egiten diren ikatzaren horniketak. Horren barruan ez da sartuko energia termiko erabilgarria ekoizteko erabiliko den ikatza, haren amaierako ustiapena industriako fabrikak edo instalazioak ez diren establezimendu edo lokaletan gauzatuko bada. Era berean, erabilera profesionaletarako ikatz gisa hartuko da nekazaritza-laborantzan erabilitako ikatza.

1.2 epigrafea: Beste erabilera batzuetarako ikatza: 0,65 euro gigajouleko.

2. Energia elektrikoaren eta energia termiko erabilgarriaren baterako sorkuntzako instalazio batean erabiliko den ikatzaren horniketetan, instalazio hori Sektore Elektriakoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea garatzeko araudiak aipatutako errendimendu elektriko baliokidea betetzen duela egiaztatzeko betebeharrari lotuta dagoenean, artikulua honen 1. paragrafoaren 1.1 eta 1.2 epigrafeetan araututako zerga-tasak aplikatuko dira; horretarako, oinarritzat hartuko da alternadore-borneetan neurtutako elektrizitatearen ekoizpenari eta energia termiko baliagarriari egokituko zaien ikatzaren ehuneko, erregelamendu bidez ezarritako prozeduraren arabera.»

Bi. 85. artikulua 1. paragrafoari lerrokada bat gehitzen zaio; hona nola geratzen den idatzita:

«Ikatza legearen 84.2 artikuluan zehaztutako baldintzetan hornitzean, elektrizitatearen eta energia termiko erabilgarriaren baterako sorkuntzako zentralen titularrek jakinarazitako behin-behineko ehunekoaren arabera sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazi duten subjektu pasiboek ikatzaren erabileraren behin betiko ehunekoaren arabera erregularizatu beharko dute jasanarazitako kuoten zenbatekoa, ehuneko hura ezagutu ostean, erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren bidez.»

Hiru. Aldatu egiten da 87. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«87. artikulua. *Arau-haustek eta zehapenak.*

1. 84. artikulua 1.1 epigrafean zehaztutako zerga-tasa aplikatuta egindako ikatz-horniketetan, zerga alorreko arau-hauste larria izango da subjektu pasiboek datu faltsuak edo okerrak jakinaraztea, dagozkienak baino kuota txikiagoak jasanaraztea eragiten dutenean.

Zehapenaren oinarria jasanarazi beharreko kuoten eta benetan jasanarazitakoen arteko diferentzia izango da.

Zehapena ehuneko 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

2. Zerga horren tributu-arloko gainerako arau-hausteak Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraikiz kalifikatu eta zehatuko dira.»

Azken xedapenetako seigarrena. *Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 3ko 3/2013 Legea aldatzea.*

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 3ko 3/2013 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriari 3. paragrafoa eransten zaio; hona hemen testua:

«3. Elektrizitatearen eta hidrokarburoen sektorean: energiaren sektorean partaidetzak bereganatzeko eragiketen berri izatea.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Gastua ez handitzea.*

Errege lege-dekretu honetan xedatutako erregistroak sortzeak ez du gastu publikoaren handitzea eragingo, eta haien funtzionamenduak eragindako gastuak atxikita dauden Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren gastu-aurrekontuari egotziko zaizkio.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Erregelamenduzko xedapenak aldatzea.*

1. Errege lege-dekretu honek aldatzen dituen erregelamenduetako xedapenak dauden arauaren lerrun bereko arauen bitartez aldatu ahal izango dira.

2. Halaber, Industria, Energia eta Turismoko ministroari gaikuntza ematen zaio errege lege-dekretu honen 4., 5. eta 7. artikuluen eta eranskinen edukia aldatzeko eta garatzeko.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Araugintzarako gaikuntza eta erregelamendu bidezko garapena.*

Gobernuari eta Industria, Energia eta Turismoko ministroari gaikuntza ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko beharrezko diren xedapen guztiak emateko.

Zehazki, Gobernuari baimena ematen zaio sektore elektrikoko jarduera arautuen ordainsariaren indexazioa aldatzeko.

Azken xedapenetako hamargarrena. *Indarrean sartzea.*

Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Madrilén, 2013ko uztailaren 12an.

JUAN CARLOS, E.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY

I. ERANSKINA

2013ko bigarren epean banaketa-jardueraren ordainsaria kalkulatzeko metodologia

1. 2013ko bigarren epean i banaketa-enpresari dagokion ordainsaria hurrengo adierazpenaren arabera kalkulatu da:

$$R_{2p-2013}^i = RI_{2p-2013}^i + ROM \& OCD_{2p-2013}^i + Q_{2013}^i + P_{2013}^i \text{ eta:}$$

$R_{2p-2013}^i$; i banaketa-enpresari banaketa-jarduera gauzatzeagatik 2013ko bigarren epean aitortutako ordainsaria da, 2011n zerbitzuan zeuden aktiboei lotutakoa.

$RI_{2p-2013}^i$; i banaketa-enpresari 2013ko bigarren epean aitortutako inbertsio-ordainsaria da, 2011n zerbitzuan zeuden aktiboei lotutakoa.

$ROM \& OCD_{2p-2013}^i$; i banaketa-enpresari eragiketa-, mantentze- eta bestelako banaketa-kostuengatik 2013ko bigarren epean aitortutako ordainsaria da, 2011n zerbitzuan zeuden aktiboei lotutakoa.

Q_{2013}^i ; bere sareetara konektatuta 100.000 bezero baino gehiago dituen i banaketa-enpresari 2013an aplikatutako zerbitzuaren kalitaterako pizgarria edo zehapena da, 2011n lortutako balioei lotutakoa.

P_{2013}^i , bere sareetara konektatutako 100.000 bezero baino gehiago dituen i banaketa-enpresari 2013an aplikatutako galerak murrizteagatik pizgarria edo zehapena da, 2011n lortutako balioei lotutakoa.

2. i banaketa-enpresari 2013ko bigarren epean aitortutako inbertsio-ordainsaria hurrengo adierazpenaren arabera kalkulatu da:

$$RI_{2p-2013}^i = \left(\frac{IBR_{2013}^i}{VU^i} + INR_{2013}^i \cdot TRF \right) \cdot \omega_{2p-2013}$$

; lehenengo terminoa aktiboaren amortizazio lineala da, eta bigarrena, aktiboaren balio garbiaren finantza-ordainsariaren terminoa; bioi 2013ko bigarren epe arautzailean euren efektuak mugatzeko parametro batek eragiten die.

Aurreko adierazpenean:

$\omega_{2p-2013}$; errege lege-dekretu hau indarrean sartzen denetik 2013a amaitu bitarteko egun kopuruaren eta urte horretako egun kopuru osoaren arteko zatidura adierazten duen parametroa.

VU^i ; i banaketa-enpresaren instalazioen batez besteko balio-bizitza arautzailea.

TRF errege lege-dekretu honen 6.2 artikuluan definitu den 2013ko bigarren ordainketa-epeko finantza-ordainsariaren tasa da.

IBR_{2013}^i i banaketa-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu gordina da (hortaz, hirugarrenek finantzatutako eta lagatako instalazioen balioa kenduta du), 2011n zerbitzuan dauden eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez duten instalazioei lotutakoa.

INR_{2013}^i i banaketa-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu garbia da, 2011n zerbitzuan dauden eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez duten instalazioei lotutakoa.

3. i banaketa-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu gordina kalkulatzeko, 2011n zerbitzuan dauden eta IBR_{2013}^i urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez duten instalazioei lotutakoa, ondoko formula hau erabiliko da:

Termino hori hurrengo adierazpena aplikatuta kalkulatu da:

$$IBR_{2013}^i = \frac{R_{2013}^i \cdot (1 - \alpha^i) \cdot VU^i}{1 + (VR^i \cdot TR)}; \text{ eta}$$

R_{2013}^i energia elektrikoaren i banaketa-enpresari banaketa-jarduerarengatik aitortutako ordainsaria da, kalitateko eta galerak murriztera zuzendutako pizgarri gabekoa eta 2011ra arte zerbitzuan jarritako aktiboei lotutakoa. Ordainsari hori otsailaren 14ko IET/221/2013 Aginduan enpresa bakoitzarentzat zehaztutakoarekin bat etorriko da.

α^i ; koefiziente horrek adierazten du, banaketa-enpresa bakoitzarentzat, ordainsariaren zer kantitate, bat oinarrian, bideratzen den enpresek eragindako eragiketa-, mantentze- eta bestelako banaketa-kostuak ordaintzera, merkataritza izaera duten kostuak alde batera utzita. Parametro horren balioa kostuak arautzeko informazioa oinarritzat hartuta lortuko da.

VR^i i banaketa-enpresaren instalazioen hondar-bizitza da.

TR: Otsailaren 15eko 222/2008 Errege Dekretuaren 7. artikuluari jarraikiz kalkulatuak ordainketa-tasa da, oinarritzat hartuta Energiaren Batzorde Nazionalak 2008an ezarritako metodologia, eta 2011ko abenduaren 31ko datuak erabilia.

Sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu gordinaren terminoa (IBR_{2013}^i) kalkulatu ostean, sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu garbia (INR_{2013}^i) kalkulatu da, honako adierazpen

$$INR_{2013}^i = IBR_{2013}^i \cdot \frac{VR^i}{VU^i}$$

honen arabera:

4. i banaketa-enpresari eragiketa-, mantentze- eta bestelako banaketa-kostuengatik aitortutako ordainsaria epe arautzaileko 2013ko bigarren epean, 2011n zerbitzuan zeuden aktiboei lotutakoa, honako adierazpen honen arabera kalkulatu da:

$$ROM \& OCD_{2p-2013}^i = \alpha^i \cdot R_{2013}^i \cdot \varphi_{O\&M} \cdot \omega_{2p-2013}; \text{ eta:}$$

R_{2013}^i , $\omega_{2p-2013}$ eta α^i aurrez adierazitako terminoak dira.

$\varphi_{O\&M}$ Eragiketaren eta mantentzearen efizientzia-faktorea. Eragiketaren eta mantentzearen kudeaketan efizientzia sustatze aldera, eta jardueraren monopolio naturalaren izaeraren ondorioz, eragiketa eta mantentzeagatiko ordainsariari eragingo dion efizientzia-faktorea txertatzen da. Eragiketaren eta mantentzearen efizientzia-faktorearen balioa 0,97 izango da.

5. Kalitatea hobetzeraz eta galerak murrizteraz zuzendutako pizgarriak kalkulatzeko, oinarritzat hartuko dira, alde batetik, abenduaren 26ko ITC/3801/2008 Agindua, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako tarifa elektrikoak berrikustekoa, eta, bestetik, irailaren 8ko ITC/2524/2009 Agindua, zeinaren bidez energia elektrikoaren banaketa-enpresa bakoitzaren banaketa-ordainsariari aplikatuko zaion galerak murrizteraz zuzendutako pizgarria edo zigorra kalkulatzeko metodoa arautzen baita.

II. ERANSKINA

2014tik aurrera banaketa-jardueraren ordainsaria kalkulatzeko metodologia

- 2014tik aurrera i banaketa-enpresari banaketa-jarduerarengatik urtean aitortuko zaion ordainsaria honako formula hauen bidez zehaztuko da:

$$R_n^i = RI_n^i + ROM \& OCD_n^i + Q_n^i + P_n^i ; \text{ eta:}$$

RI_n^i n urtean i banaketa-enpresari aitortutako inbertsio-ordainsaria da, n-2 urtean zerbitzuan zeuden aktiboei lotutakoa.

$ROM \& OCD_n^i$: n urtean i banaketa-enpresari eragiketa-, mantentze- eta bestelako banaketa-kostuengatik aitortutako ordainsaria, n-2 urtean zerbitzuan zeuden aktiboei lotutakoa.

Q_n^i ; bere sareetara konektatutako 100.000 bezero baino gehiago dituen i banaketa-enpresari aplikatutako zerbitzuaren kalitaterako pizgarria edo zehapena n urtean, n-2 urtean lortutako balioei lotutakoa.

P_n^i ; bere sareetara konektatutako 100.000 bezero baino gehiago dituen i banaketa-enpresari aplikatutako galerak murrizteagatik pizgarria edo zehapena n urtean, n-2 urtean lortutako balioei lotutakoa.

- n urtean i banaketa-enpresari aitortutako inbertsio-ordainsaria, n-2 urtean zerbitzuan zeuden aktiboei lotutakoa, honako adierazpen honen arabera kalkulatu da:

$$RI_n^i = \frac{IBR_n^i}{VU^i} + INR_n^i \cdot TRF ; \text{ lehenengo terminoa aktiboaren amortizazio lineala da, eta}$$

bigarrena, aktiboaren balio garbiaren finantza-ordainsariaren terminoa.

TRF 6.3 artikuluan definitu den 2013ko bigarren ordainketa-epeko finantza-ordainsariaren tasa da.

Aurreko terminoak kalkulatzeko, IBR_n^i kalkulatu da, formula honen arabera:

$$IBR_n^i = IBR_{n-1}^i + \gamma^i \cdot \delta_{n-2}^i \cdot \Delta INV_{n-2}^i - IB_Tot_Amort_{n-3}^i ; \text{ eta:}$$

IBR_n^i i banaketa-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen n urteko ibilgetu gordina da.

IBR_{n-1}^i i banaketa-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen n-1 urteko ibilgetu gordina da.

$IB_Tot_Amort_{n-3}^i$ n-3 urtean zehar erabat amortizatu diren eta, hortaz, urte horretan bere balio-bizitza arautzailea gainditu duten aktiboei dagokien n-3 urteko amortizazio arautzailearen balioa da.

ΔINV_{n-2}^i ; i banaketa-enpresaren ikuskatutako inbertsioaren guztizko bolumena n-2 urtean.

γ^i i banaketa-enpresaren inbertsioaren efizientzia-koefizientea da, banaketa-enpresaren inbertsio-efizientziari lotutakoa.

δ_{n-2}^i ; bat oinarriko koefiziente horrek adierazten du, i banaketa-enpresarentzat, hirugarrenek finantzatutako eta lagatakoak diren n-2 urtean zerbitzuan jarritako instalazioen bolumenaren baterako osagarria.

Finantza-ordainsaria kalkulatzeko, i banaketa-enpresari n urtean aitortutako sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu gordinaren balioa da INR_n^i , eta, hortaz, n-2 urteko bere ibilgetuaren ordainsariaren balio garbia jasotzen du. Balioa kalkulatzeko, honako hau erabiliko da:

$$INR_n^i = INR_{n-1}^i + \gamma^i \cdot \delta_{n-2}^i \cdot \Delta INV_{n-2}^i - Amort_{n-3}^i ; \text{ eta:}$$

INR_n^i ; i enpresari n urtean aitortutako sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu garbiaren balioa.

INR_{n-1}^i ; i banaketa-enpresari n-1 urtean aitortutako sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu garbiaren balioa.

$Amort_{n-3}^i$; n-3 urteko amortizazio arautzailearen balioa da, n-3 urte horretan zerbitzuan izandako aktibo guztiei dagokiena. Balio hori bat dator n-1 urtean amortizazio-ordainsari gisa jasotako ordainsariarekin.

γ^i eta δ_{n-2}^i ; aurrez adierazitako parametroak dira.

3. i banaketa-enpresari eragiketa-, mantentze- eta bestelako banaketa-kostuengatik n urtean aitortutako ordainsaria, n-2 urtean zerbitzuan zeuden aktiboek lotutakoa, honako adierazpen honen arabera kalkulatu da:

$$ROM \& OCD_n^i = ROM \& OCD_{n-1}^i \cdot (1 + IAOM \& OCD_{n-2}) + \lambda_{n-2}^i \cdot \Delta INV_{n-2}^i$$

$ROM \& OCD_{n-1}^i$; i banaketa-enpresari eragiketa-, mantentze- eta bestelako banaketa-kostuengatik n-1 urtean aitortutako ordainsaria.

λ_{n-2}^i ; koefiziente horrek adierazten du, i banaketa-enpresarentzat, zer kantitate, bat oinarrian, osatzen duen eragiketa-, mantentze- eta bestelako banaketa-kostuengatiko ordainsariak, n-2 urtean aurrera eramandako inbertsio-bolumenari dagokionez. Koefiziente hori kalkulatzeko, kontuan izan behar da egindako inbertsioen zer zati bideratzen den berritzera. Era berean, koefizienteak I. eranskinean adierazitako eragiketaren eta mantentzearen efizientzia-faktorea barne hartuko du.

$IAOM \& OCD_{n-2}$; eragiketa-, mantentze- eta bestelako kostuengatiko n-2 urteko ordainsaria eguneratzeko indizea da. Indizea honela kalkulatu da:

$$IAOM \& OCD_{n-2} = 0,2 \cdot \left(\frac{IPC_{n-2} - 0,8}{100} \right) + 0,8 \cdot \left(\frac{IPRI_{n-2} - 0,4}{100} \right); \text{ eta:}$$

IPC_{n-2} ; konstanteen arabeko eta elikagai ez-elaboraturik eta energia-produkturik gabeko kontsumoko prezioen indizearen aldakuntzaren baliorik txikiena, n-2 urtean.

$IPRI_{n-2}$; ekipamendu-ondasunen industria-prezioen indizearen aldakuntzaren baliorik txikiena, n-2 urtean.

4. Kalitatea hobetzera eta galerak murriztera zuzendutako pizgarrien kalkulua abenduaren 26ko ITC/3801/2008 Aginduarekin eta irailaren 8ko ITC/2524/2009 Aginduarekin bat etorri egingo da.

III. ERANSKINA

2013ko bigarren epean garraio-jardueraren ordainsaria kalkulatzeko metodologia

1. Garraio-instalazioen titular den i enpresari 2013ko bigarren epean dagokion ordainsaria hurrengo adierazpenaren arabera kalkulatu da:

$$R_{2p-2013}^i = R_{pre-1998}^i + R_{1998-2007}^i + R_{2008-2011}^i + ID_{2013}^i \quad \text{eta:}$$

$R_{2p-2013}^i$; i enpresari garraio-jarduera gauzatzeagatik 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta 2013. urtea amaitu bitartean, aitortutako ordainsaria da, 2011n zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

$R_{pre-1998}^i$; i enpresari garraio-jarduera gauzatzeagatik 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta 2013. urtea amaitu bitartean, aitortutako ordainsaria da, 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

$R_{1998-2007}^i$; i enpresari garraio-jarduera gauzatzeagatik 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta 2013. urtea amaitu bitartean, aitortutako ordainsaria da, 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

$R_{2008-2011}^i$; i enpresari garraio-jarduera gauzatzeagatik 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta 2013. urtea amaitu bitartean, aitortutako ordainsaria da, 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

ID_{2013}^i i garraio-enpresak 2013an jasoko duen erabilgarritasun-pizgarria da, bere garraio-instalazioek 2011n eskainitako erabilgarritasun mailari lotutakoa.

2. Garraioen instalazioen titular den enpresa bakoitzak 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako instalazioengatik jasoko duen ordainsaria zehazteko, ondoko formula hau aplikatu da:

$$R_{pre-1998}^i = RI_{pre-1998}^i + ROM_{pre-1998}^i \quad \text{eta:}$$

$RI_{pre-1998}^i$; i enpresari garraio-jarduera gauzatzeagatik 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta 2013. urtea amaitu bitartean, aitortutako inbertsio-ordainsaria da, 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

$ROM_{2p-2013}^i$; i enpresari 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta urte hori amaitu bitartean, aitortutako eragiketa- eta mantentze-ordainsaria da, 1998an zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan jarraitzen duten instalazio guztiei lotutakoa.

2.a) $RI_{2p-2013}^i$ kalkulatzeko, honako adierazpen hau aplikatuko da:

$$RI_{2p-2013}^i = \left(\frac{IBR_{2013}^i}{VU^i} + INR_{2013}^i \cdot TRF \right) \cdot \omega_{2p-2013}$$

Aurreko adierazpenean:

$\omega_{2p-2013}$; errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta 2013a amaitu bitarteko egun kopuruaren eta urte horretako egun kopuru osoaren arteko zatidura adierazten duen parametroa.

VU^i ; i garraio-enpresaren instalazioen batez besteko balio-bizitza arautzailea.

TRF errege lege-dekretu honen 6.2 artikuluan definitu den 2013ko bigarren ordainketa-epeko finantza-ordainsariaren tasa da.

IBR_{2013}^i ; i garraio-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea

duen 2013ko ibilgetu gordina da (hortaz, hirugarrenek finantzatutako eta lagatako instalazioen balioa kenduta du), 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa, baldin eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute.

Honako formula hau erabiliko da garraio-instalazioen titular den i enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu gordina kalkulatzeko, 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazioei lotutakoa, baldin eta IBR_{2013}^i urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute:

$$IBR_{2013}^i = \frac{R_{2013}^i \cdot \alpha_{pre-1998}^i \cdot VU^i}{1 + (VR_{pre-1998}^i \cdot TRH_{pre-1998})}; \text{ eta:}$$

R_{2013}^i ; otsailaren 14ko IET/221/2013 Aginduan ageri den i garraio-enpresaren ordainsariaren zatia da, 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazioei lotutakoa.

$\alpha_{pre-1998}^i$; koefiziente horrek adierazten du ordainsariaren zer kantitate, bat oinarrian, bideratzen den inbertsioa ordaintzera, garraioen instalazioen titular den enpresa bakoitzarentzat eta 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazioei lotutako ordainsariari dagokionez.

$VR_{pre-1998}^i$; 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan jarraitzen duten i enpresaren instalazioen batez besteko hondar-bizitza da, 2011ko abenduaren 31n.

$TRH_{pre-1998}$: Instalazioen sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu gordina kalkulatzeko aplikatutako ordainketa-tasa historikoa, 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako instalazioak direnean. Parametro horren balioa abenduaren 23ko 2819/1998 Errege Dekretuak ezarritako metodologiari jarraikiz 1998an zerbitzuan jarritako instalazioentzat hartu zen ordainketa-tasaren berdina izango da.

$INR_{pre-1998}^i$; i garraio-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea

duen 2013ko ibilgetu garbia da (hortaz, hirugarrenek finantzatutako eta lagatutako instalazioen balioa kenduta du), 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa, baldin eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute. Sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu gordinaren terminoa ($IBR_{pre-1998}^i$) kalkulatu ostean, sistema

elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu garbia ($INR_{pre-1998}^i$)

honako adierazpen honen arabera kalkulatu da: $INR_{pre-1998}^i = IBR_{pre-1998}^i \cdot \frac{VR_{pre-1998}^i}{VU^i}$

2. b) Honako adierazpen hau erabiliko da i garraio-enpresa bakoitzak 2013an jasotako eragiketa- eta mantentze-ordainsaria kalkulatzeko, 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan jarraitzen duten i enpresaren instalazioengatik, baldin eta horiek urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute:

$$ROM_{pre-1998}^i = (1 - \alpha_{pre-1998}^i) \cdot R_{pre-1998}^i \cdot \varphi_{O\&M} \cdot \omega_{2p-2013}; \text{ eta:}$$

$R_{pre-1998}^i$, $\omega_{2p-2013}$ eta $\alpha_{pre-1998}^i$ aurrez adierazitako terminoak dira.

$\varphi_{O\&M}$ Eragiketaren eta mantentzearen efizientzia-faktorea. Eragiketaren eta mantentzearen kudeaketan efizientzia sustatze aldera, eta jardueraren monopolio naturalaren izaeraren ondorioz, eragiketa eta mantentzeagatiko ordainsariari eragingo dion efizientzia-faktorea txertatzen da. Eragiketaren eta mantentzearen efizientzia-faktorearen balioa 0,97 izango da.

3. Garraio-instalazioen titular den enpresa bakoitzak jasoko duen ordainsaria zehazteko, 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan jarraitzen duten instalazio guztiengatik, honako formula hau aplikatuko da:

$$RI_{1998-2007}^{i, 2p-2013} = RI_{1998-2007}^{i, 2p-2013} + ROM_{1998-2007}^{i, 2p-2013} ; \text{ eta:}$$

$RI_{1998-2007}^{i, 2p-2013}$; i enpresari 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau indarrean

sartu eta 2013. urtea amaitu bitartean, aitortutako inbertsio-ordainsaria da, 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

$ROM_{1998-2007}^{i, 2p-2013}$; i enpresari 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau

indarrean sartu eta 2013. urtea amaitu bitartean, aitortutako eragiketa- eta mantentze-ordainsaria da, 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

- 3.a) $RI_{1998-2007}^{i, 2p-2013}$ kalkulatzeko, honako adierazpen hau aplikatuko da:

$$RI_{1998-2007}^{i, 2p-2013} = \left(\frac{IBR_{1998-2007}^{i, 2013}}{VU^i} + INR_{1998-2007}^{i, 2013} \cdot TRF \right) \cdot \omega_{2p-2013}$$

Aurreko adierazpenean:

$\omega_{2p-2013}$, VU^i eta TRF aurrez definitutako terminoak dira.

$IBR_{1998-2007}^{i, 2013}$; i garraio-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-

eskubidea duen 2013ko ibilgetu gordina da (hortaz, hirugarrenek finantzaturako eta lagatako instalazioen balioa kenduta du), 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa, baldin eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute.

Honako formula hau erabili beharko da garraio-instalazioen titular den i enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu gordina kalkulatzeko, 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazioei lotutakoa, baldin eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute:

$$IBR_{1998-2007}^{i, 2013} = \frac{R_{1998-2007}^{i, 2013} \cdot \alpha_{1998-2007}^i \cdot VU^i}{1 + (VR_{1998-2007}^i \cdot TRH_{1998-2007})}; \text{ eta:}$$

$R_{1998-2007}^{i, 2013}$ otsailaren 14ko IET/221/2013 Aginduan ageri den i garraio-enpresaren ordainsariaren zatia da, 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazioei lotutakoa, baldin eta horiek urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute.

$\alpha_{1998-2007}^i$; koefiziente horrek adierazten du ordainsariaren zer kantitate, bat oinarrian, bideratzen den inbertsioa ordaintzera, garraio-instalazioen titular den enpresa bakoitzarentzat, eta 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazioei lotutako ordainsariari dagokionez.

$VR_{1998-2007}^i$; 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazioen batez besteko hondar-bizitza da, 2011ko abenduaren 31n.

$TRH_{1998-2007}$: instalazioen sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu gordina kalkulatzeko aplikatutako ordainketa-tasa historikoa, 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean zerbitzuan jarritako instalazioak direnean. Parametro horren batez besteko balioa abenduaren 23ko 2819/1998 Errege Dekretuak ezarritako metodologiari jarraikiz 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean zerbitzuan jarritako instalazioentzat ordainketa-tasek hartu zutenaren berdina izango da.

$INR_{1998-2007}^{i, 2013}$; i garraio-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu garbia da (hortaz, hirugarrenek finantzatutako eta lagatutako instalazioen balioa kenduta du), 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa, baldin eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute. Sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu gordinaren terminoa ($IBR_{1998-2007}^{i, 2013}$) kalkulatu ostean, sistema elektrikoaren konturako ordainketa-

eskubidea duen 2013ko ibilgetu garbia ($INR_{1998-2007}^{i, 2013}$) honako adierazpen honen arabera kalkulatu da:

$$INR_{1998-2007}^{i, 2013} = IBR_{1998-2007}^{i, 2013} \cdot \frac{VR_{1998-2007}^i}{VU^i}$$

3. b) Honako adierazpen hau erabiliko da i garraio-enpresa bakoitzak 2013an jasoko duen eragiketa- eta mantentze-ordainsaria kalkulatzeko, 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan jarraitzen duten i enpresaren instalazioengatik, baldin eta horiek urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute:

$$ROM_{1998-2007}^{i, 2013} = (1 - \alpha_{1998-2007}^i) \cdot R_{1998-2007}^{i, 2013} \cdot \varphi_{O\&M} \cdot \omega_{2p-2013} ; \text{ eta:}$$

$R_{1998-2007}^{i, 2013}$, $\omega_{2p-2013}$, $\alpha_{1998-2007}^i$ eta $\varphi_{O\&M}$ aurrez adierazitako terminoak dira.

4. Garraio-instalazioen titular den enpresa bakoitzak jasoko duen ordainsaria zehazteko, 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan jarraitzen duten instalazioengatik, honako formula hau aplikatuko da:

$$RI_{2008-2011}^{i, 2p-2013} = RI_{2008-2011}^{i, 2p-2013} + ROM_{2008-2011}^{i, 2p-2013} \quad \text{eta:}$$

$RI_{2008-2011}^{i, 2p-2013}$; i enpresari 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau indarrean

sartu eta 2013. urtea amaitu bitartean, aitortutako inbertsio-ordainsaria da, 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

$ROM_{2008-2011}^{i, 2p-2013}$; i enpresari 2013ko bigarren epean, hau da, errege lege-dekretu hau

indarrean sartu eta 2013. urtea amaitu bitartean, aitortutako eragiketa- eta mantentze-ordainsaria da, 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

4.a) $RI_{2008-2011}^{i, 2p-2013}$ kalkulatzeko, honako adierazpen hau aplikatuko da:

$$RI_{2008-2011}^{i, 2p-2013} = \left(\frac{IBR_{2008-2011}^{i, 2013}}{VU^i} + INR_{2008-2011}^{i, 2013} \cdot TRF \right) \omega_{2p-2013}$$

Aurreko adierazpenean:

$\omega_{2p-2013}$, VU^i eta TRF aurrez definitutako terminoak dira.

$IBR_{2008-2011}^{i, 2013}$; i garraio-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea

duen 2013ko ibilgetu gordina da (hortaz, hirugarrenek finantzatutako eta lagatako instalazioen balioa kenduta du), 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa, baldin eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute.

Ondoko formula hau erabiliko da garraio-instalazioen titular den i enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu gordina kalkulatzeko, 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazioei lotutakoa, baldin eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute:

$$IBR_{2008-2011}^i = \frac{R_{2013}^i \cdot \alpha_{2008-2011}^i \cdot VU^i}{1 + (VR_{2008-2011}^i \cdot TRH_{2008-2011})} \cdot \left(\frac{1}{(1 + TA)^{(VU - VR_{2008-2011}^i)}} \right); \text{ eta:}$$

R_{2013}^i ; otsailaren 14ko IET/221/2013 Aginduan ageri den i garraio-enpresaren ordainsariaren zatia da, 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazioei lotutakoa, baldin eta horiek urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute.

$\alpha_{2008-2011}^i$; koefiziente horrek adierazten du ordainsariaren zer kantitate, bat oinarrian, bideratzen den inbertsioa ordaintzera, garraio-instalazioen titular den enpresa bakoitzarentzat, eta 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazioei lotutako ordainsariari dagokionez.

TA: ehuneko 2,5eko balio konstantea duen eguneratze-tasa.

$TRH_{2008-2011}$: Instalazioen sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu gordina kalkulatzeko aplikatutako ordainketa-tasa historikoa, 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazioak direnean. Parametro horren batez besteko balioa aipatutako denbora-tartean zerbitzuan jarritako instalazioentzako ordainketa-tasek otsailaren 29ko 325/2008 Errege Dekretuak ezarritako metodologiari jarraikiz hartu zutenaren berdina izango da.

$VR_{2008-2011}^i$; 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan dauden instalazioen batez besteko hondar-bizitza da, 2011ko abenduaren 31n.

$INR_{2008-2011}^i$; i garraio-enpresaren sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen 2013ko ibilgetu garbia da (hortaz, hirugarrenek finantzatutako eta lagatutako instalazioen balioa kenduta du), 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean zerbitzuan jarritako eta 2011n zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa, baldin eta urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute. Sistema elektrikoaren konturako ordainketa-eskubidea duen ibilgetu gordinaren terminoa ($IBR_{2008-2011}^i$) kalkulatu ostean, sistema elektrikoaren konturako ordainketa-

eskubidea duen 2013ko ibilgetu garbia ($INR_{2008-2011}^i$) honako adierazpen honen arabera kalkulatu da:

$$INR_{2008-2011}^i = IBR_{2008-2011}^i \cdot \frac{VR_{2008-2011}^i}{VU^i}$$

4. b) Honako adierazpen hau erabiliko da i garraio-enpresa bakoitzak 2013an jasotako eragiketa- eta mantentze-ordainsaria kalkulatzeko, 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean zerbitzuan jarritako eta 2011n oraindik zerbitzuan jarraitzen duten i enpresaren instalazioentzat, baldin eta horiek urte horretan beren balio-bizitza arautzailea gainditu ez badute:

$$ROM_{2008-2011}^i = (1 - \alpha_{2008-2011}^i) \cdot R_{2008-2011}^i \cdot \varphi_{O\&M} \cdot \omega_{2p-2013} ; \text{ eta:}$$

$R_{2008-2011}^i$, $\omega_{2p-2013}$, $\alpha_{2008-2011}^i$ eta $\varphi_{O\&M}$ aurrez adierazitako terminoak dira.

IV. ERANSKINA

2014tik aurrera garraio-jardueraren ordainsaria kalkulatzeko metodologia

1. 2014tik aurrera garraio-instalazioen titularrari garraio-jarduerarengatik urtean aitortuko zaion ordainsaria honako formula hauen bidez zehaztuko da:

$$R_n^i = R_{n, \text{pre-1998}}^i + R_{n, 1998-2007}^i + R_{n, 2008-2011}^i + \sum_{\forall j \text{ post-2011}} R_{j,n}^i + ID_n^i \quad \text{eta:}$$

R_n^i ; i enpresari garraio-jarduera gauzatzeagatik n urtean aitortutako ordainsaria da, n-2 urtean zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

$R_{n, \text{pre-1998}}^i$; i enpresari garraio-jarduera gauzatzeagatik n urtean aitortutako ordainsaria da, 1998a baino lehen zerbitzuan jarritako eta n-2 urtean oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

$R_{n, 1998-2007}^i$; i enpresari garraio-jarduera gauzatzeagatik n urtean aitortutako ordainsaria da, 1998ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta n-2 urtean oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

$R_{n, 2008-2011}^i$; i enpresari garraio-jarduera gauzatzeagatik n urtean aitortutako ordainsaria da, 2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) zerbitzuan jarritako eta n-2 urtean oraindik zerbitzuan dauden instalazio guztiei lotutakoa.

ID_n^i i garraio-enpresak n urtean jasoko duen erabilgarritasun-pizgarria da, bere garraio-instalazioek n-2 urtean eskainitako erabilgarritasun mailari lotutakoa.

$\sum_{\forall j \text{ post-2011}} R_{j,n}^i$ i enpresari n urtean aitortutako ordainsaria da, 2011ren ostean zerbitzuan jarritako eta n-2 urtean oraindik zerbitzuan dauden j instalazio guztiei lotutakoa.

2. Martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuarekin bat, ordainsariaren sortzapena m+2 urtetik aurrera egingo da, m zerbitzuan jarri zen urtea izanik. Instalazio bakoitzak sortutako ordainsaria honela kalkulatu da:

$$R_{j,n}^i = RI_{j,n}^i + ROM_{j,n}^i ; \text{ eta:}$$

$RI_{j,n}^i$ i enpresaren j instalazioak n urtean jasoko duen inbertsio-ordainsaria da, eta honela kalkulatu da:

$$R_{j,n}^i = \frac{VI_j}{VU_j} + (VI_j - (k-2) \cdot \frac{VI_j}{VU_j}) \cdot TRF ; \text{ eta:}$$

VU_j : j instalazioaren balio-bizitza arautzailea da, urtetan adierazita.

instalazioa zerbitzuan jarri zenetik igarotako urte kopurua da k.

TRF 6.3 artikuluan definitutako finantza-ordainsariaren tasa da.

VI_j ; j instalazioaren inbertsioaren balio aitortua da, zerbitzuan jarritako urtean ebaluatutakoa. Balio hori honela kalkulatu da: egindako inbertsioaren benetako balioaren batura, behar bezala ikuskatuta, gehi balio unitarioak aplikatzearen emaitzaren eta aipaturiko benetako balioaren arteko diferentziaren ehuneko 50:

$$VI_j = VI_{j,\text{benetakoa}} + \frac{1}{2}(VI_{j,\text{balio unitarioak}} - VI_{j,\text{benetakoa}})$$

$ROM_{j,n}^i$ j garraio-sareko instalazioak n urtean jasoko duen eragiketa- eta mantentze-ordainsaria da, n-2 urtean zerbitzuan egotearen ondoriozkoa. Balio hori kalkulatzeko, zerbitzuan dagoen aktibo bakoitzari eragiketa eta mantentzearen balio unitarioak aplikatuko zaizkio.

3. R_{n-1998}^i , $R_{n-1998-2007}^i$ eta $R_{n-2008-2011}^i$ terminoak kalkulatzeko, horietako bakoitzak instalazio bakarra hartuko balu bezala joko da.

Inbertsio-ordainsaria kalkulatzeko, eranskin honen 2. puntuan adierazitako metodologia aplikatuko da, inbertsioaren balio aitortu gisa III. eranskinean kalkulaturakoa hartuta. Era berean, instalazioa zerbitzuan jarri zenetik igaro den urte kopurua kalkulatu da, III. eranskinean kalkulaturako hondar-bizitzaren arabera.

Eragiketa- eta mantentze-ordainsaria n urtean kalkulatzeko, aurrez ROM_n^i gisa $periodoP$ adierazitako p epe bakoitzean zerbitzuan jarritako instalazio-multzoarentzat, honako adierazpen hau erabiliko da:

$$ROM_{n-1998-2007}^i = ROM_{n-1998-2007}^i \cdot (1 + IAOM_{n-2});$$

Bertan, eguneratze-indizea honela kalkulatu da:

$$IAOM_{n-2} = 0,2 \cdot \left(\frac{IPC_{n-2} - 0,8}{100} \right) + 0,8 \cdot \left(\frac{IPRI_{n-2} - 0,4}{100} \right); \text{ eta:}$$

IPC_{n-2} ; konstanteen arabera eta elikagai ez-elaboraturik eta energia-produkturik gabeko kontsumoko prezioen indizearen aldakuntzaren baliorik txikiena da, n-2 urtean.

$IPRI_{n-2}$; ekipamendu-ondasunen industria-prezioen indizearen aldakuntzaren baliorik txikiena da, n-2 urtean.

4. Penintsulako garraio-instalazioen inbertsio-balioa eta eragiketa- eta mantentze-ordainsariaren balioa kalkulatzeko, instalazio horiek 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera jarri direnean zerbitzuan, otsailaren 21eko ITC/368/2011 Aginduan ezarritakoak erabiliko dira erreferentziazko balio unitario gisa.

Penintsulatik kanpoko garraio-instalazioen kasuan, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera jarri direnean zerbitzuan, inbertsioaren eta eragiketa- zein mantentze-ordainsariaren balioa kalkulatzeko erabili beharreko erreferentziazko balio unitarioak 2008tik aurrera zerbitzuan jarritako instalazioentzat onartutakoak berak izango dira.

Inbertsioari, eragiketari zein mantentzeari dagokienez, aurreko lerrokadan aipatutako $IAOM_{n-2}$ indizea erabiliko da balioak eguneratzeko.